



urtekarria

2017

Bertako ekoizleekin konpromisoa



Hemengoak
gara eta
bertako
produktuen
kontsumoa
sustatzen dugu



www.eroski.es



EROSKI

zurekin

Hurrengo orrialdeotan, 2017an ANBOTOk kaleratutako urtekaria duzu. Beraz, joan berri den urtean Durangaldean gertatutakoen bilduma irakurgai duzu. Iaz zeresan handia eman zuten albisteen artean arakatu eta zertzelada moduan honako hauek nabarmenduko nituzke.

Kataluniako prozesuak Durangaldean ere eragin du, jakina, eta ANBOTOk ere, eskualde ikuspuntutik bada ere, aktualitate horren jarraipena egin du. Durangaldeko hainbat herritar joan ziren Kataluniara urriaren 1eko erreferendum egunera begirale eta laguntzaile. Era berean, Katalunian bizi diren eskualdeko bizilagunek ere tentsio politiko handiko sasoi hori zelan bizi izan zuten azaldu ziguten. Harrezkero gertatu den guztiagaz, nago, oraindik ere Katalunia presente izango dugula Durangaldean.

Erabakitzeko eskubidearen alde Euskal Herrian martxan den dinamika ere prozesu katalana gertutik jarraitzen dihardu. Gure Esku Dago mugimenduak maiatzaren 7an eta azaroaren 5ean deitutako galdeketa inguruko zazpi herrik parte hartu zuten. Parte-hartzea %22 ingurukoa izan zen Durangaldean. Galdeketa horiek “mugarri bat” sortzea gura zutela zioten antolatzaileek. Momentu honetan espetsxean dagoen Jordi Sanchez ANC-ko arduradunak parte hartu zuen Durangoko ekitaldian.

Beste gai batzuek ere zeresana eman dute 2017an. Durangon, bombardaketaren inguruko kereila jarri zuten auzitegietan, Bartzelonaren bideari jarraituz. Jon Irazabal Gerediagako historiariak Madrilgo eta Erromako artxiboetan ikerketa eginda, bombardaketaren egileak identifikatzea lortu zuen. Horrela, Durangoko Udalak pilotu italiar horien aurkako kereila sartu zuen uztailan, epaitegietan. Durango 1936 elkarteko kideek ere lan handia egin dute bide honetan. Urte luzez zabalik egon den zauria sendatzeko lehenengo pausoa izan daiteke.

Bestalde, kultur arloan urte ‘handia’ izan dela aitortu behar duzuet. Eneko Sagardoy Karrikatik pantaila handirako jauzia ematen ikusi dugunok emozioz bizi dugu Altzoko erraldoiaren paperagaz lortu duena. Zinemaldiko aurkezpenaren egun hori aktore durangarragaz bertatik bertara bizitzeko aukera izan nuen. Eta orain Goya sarietan 13 izendapen jaso dituzte, tartean Sagardoyrena akote berri onenaren atalean. Eneko, hazten ikusi

zaitugunok badakigu oraindik ere urrunago helduko zarela. Eta euskal zinema ere bai. Zorionak lan talde guztiari!

Igor Elortzaren Bertsolari Txapelketako finala ere ezin dugu ahaztu. Durangarrak Euskal Herriko txapelketan gehiago ez duela kantatuko iragarri zuen azken agurrean. Zure falta sumatuko dugu, baina plazetan zugaz gozatzen jarraituko dugu. Miren Amuriza berriztarra finalaren atarian gelditu da aurten. Lau urte barru seguru nago BECeko oholtzan ikusiko dugula. Begondeizuela bio!

Kirol arloan, ostera, eskualdeko bi emakume korrikalariren lana nabarmenduko nuke. Alde batetik, Oihana Azkorbeitiak Euskal Herriko selekzioagaz nazioarteko lasterketak jokatu ditu. Munduko Kopako bosgarren postua eskuratzea lorpen handia da abadiñarrantzat. Bestetik, Silvia Trigurosek Basque Ultra Trail Series txapelketa irabazi du. Zuek ere handiak zarete!

Amaitzeko, badira hautsak harrotu dituzten beste gai batzuk, adibidez, Fran Garate Durangoko zinegotziaren kontrako salaketak. Otxandioko lapurretek, Aramotzeko txabolen eraisketak, Durangon eta Zornotzan lan istripuetan hildako beharginen kasuek ere eman dute zeresana. Airearen kalitatearen inguruko erreportajeagaz zarratu dugu papereko edizioa 2017an. Izan ere, Durangon herritarrak kezkatuta daude arnasten duten/dugun airearen kalitatea dela-eta. Udalak azaldu duenez, azken bi urteotan airea “oso ona, ona edo onargarria” izan da. Informazio horrek ez ditu herritarrak lasaitu eta sakonago ikerketza eskatu dute. Elkarretaratzeak ere egin dituzte, Andra Marian eta Durangoko Azokan. Gaiak emango du zeresana 2018an ere.

Era berean, euskaratik eta euskaraz lan egiten dugunontzat 2018a urte ilusionagarria izango da. Izan ere, Euskaraldiaren aterkipean Euskal Herriko euskaltzaleok urte osorako erronka handia dugu. Euskaraz dakitenak eta ulertzen dutenak ahalduz eta aktibatzea. Horixe da egitasmo berri honen helburua. Badugu lana, baina indar txikiak batuz lortuko dugu.

Urte berri on danori!


Jone Guenetxea Arrinda (ANBOTOk zuzendaria)

Anboto komunikabideak - DHK
946 816 558 · anboto@anboto.org

anboto 
komunikabideak

 **ekin**

ekin S. Coop.
Arriagane Industrialdea (Boroa auzoa)
48340 AMOREBIETA
www.ekin.es





Meritxel Relaño: “Yemengo egoera oso dramatiko da”

▣ **Berbaz** - DURANGO

> **NAZIOARTEA.** Yemenen bizi zuten egoeraz mintzatu zen Meritxel Relaño (Durango, 1972) herrialde hartako Unicefeko bulegoko zuzendaria, urte hasieran, ANBOTOn. Herrialde hartako irudiek munduko albistegiak zabaltzen ez zituzten arren, Yemengo gerran, 2016. urtean, bonba, granada eta minen ondorioz 2.000 ume baino gehiago hil zirela nabarmen-

du zuten Relañoek elkarrizketan. Siriako egoeraz asko hitz egiten zen 2017. urte hasiera hartan, eta Yemengo egoera oso antzekoa zela azaldu zuen. “Egoera dramatiko da Yemenen”, adierazi zuen Relañoek elkarrizketan, “milioika pertsona ur eta janaririk barik daude”. Gerraren ondorioz, 460.000 ume malnutrizio larrian daudela ere azpimarratu zuen du-

rangarrak. “Herrialdean ez da janaririk sartzen giza laguntzatik aparte, komertzioa itxita dago eta ekonomia eta osasun sistema kolapsatuta”, gaineratu zuen.

Umeei eta euren amei giza laguntza helaraztea da Unicefen egiteko nagusia. Relañoek azaldu zuenez, urik ez zeukaten lekuetara ura eramatea izan zen Yemengo zereginik garrantzitsuenetako bat. Txertoen kanpaina burutu zuten, sendagaiak banatu zituzten eta gerrak suntsitutako hainbat eskola berreraiki zituzten. “Baikorra naiz; uste dut egiten dugunak zeozertarako balio duela”, adierazi zuen.



Higiezin zergaren inguruko eztabaida

▣ **Herririk herri** - DURANGO

> **HIRIGINTZA.** EAJ, PSE-EE eta PPren botoekin, 0,335ean ezarri zuten higiezin zergarako indizerik altuena, 2016ko urte amaieran. Gaia eztabaidatzeko egin zuten hirugarren udalbatzarrean onartu zuten proposamen hori. Indize hori aplikatuko zioten Durangoko hainbat bizilagunek osaturiko plataforma batek (Aldundiak 180.000 eurotik gora balioa emandako 358 etxeen jabeek aplikatzeko zen indizea) errekurritu egin zuen erabakia. “Tasa horregaz datoz, dirudunak bagina bezala, eta hori ez da horrela”, adierazi zuten. 2018ko zergetarako, 0,29ra bajatu dute indize altua.

610.000 euroko inbertsioa aurreikusita

▣ **Herririk herri** - ELORRIO

> **UDAL AURREKONTUA.** Urte hasieragaz onartu zuten 2017rako udal aurrekontua Elorrion, EH Bilduren eta Herriaren Eskubidearen aldeko botoekin. EAJ abstentitu egin zen. 7 milioi pasako aurrekontua onartu zuten, eta horietatik 610.000 euro inbertsioetara bideratzeko gorde zituzten. Belengua kalea eraberritzea, Ibarra auzoko espaloiak urbanizatzea, eskolako leihoak aldatzea, Musika Eskolako komunak berritzea, Argiñetako baselizaren teilatua konpontzea, pilotalekuko aldagelak atontzea eta Arriolako teilatua konpontzea izan dira beste inbertsioetako batzuk.



Gabriel Aresti lehiaketan Gontzal Sanchez saridun

▣ **Kultura** - ABADIÑO

> **LITERATURA.** Bilboko Udalak antolatzen duen Gabriel Aresti ipuin lehiaketako 2016ko edizioaren sariduna Gontzal Sanchez abadiñarra izan zen. *Heriotza maitasunez* izenburuko ipuina saritu zioten, eta urte hasierako ANBOTOk elkarrizketan adierazi zuenez, “umetako oroitzapenen mapa sentimentalean dago kokatua”. Egiaz hilketa bat izan den heriotza bat da ipuinaren ardatza. Heriotzaren inguruko gogoeta bat da ipuinekoa, egilearen arabera. “Hil ostean hildakoaren izena zelan erabiltzen dugun da oinarriko hausnarketa, zelan zabaltzen ditugun hildakoari buruzko gezurrak eta egiak”.

Asier Bilbao, Ukabidea karate taldeko kideagaz

Kirola - ZORNOTZA

> **ARTE MARTZIALAK.** “Nire helburua ez da munduko txapelduna izatea, gaur atzo baino apur bat hobea izatea baino”, adierazi zuen Europako txapelketako final-laurdenetan lehiatutako Asier Bilbao karatekaka. Ukabidea taldean, ia 100 gaztetxo entrenatzen ditu.



Paz Carbajosagaz mekanika ikasten

Berbaz - DURANGO

> **FEMINISMOA.** Emakumeei zuzenduriko mekanika tailerra eskaini zuen Paz Carbajosa valentziarrak, Durangon. “Emakumeak gauza jakin batzuetan baldarrak garen mitoa apurtu behar da”, zioen.



Inbertsioetarako diru gutxi Zaldibarren

Herririk herri - ZALDIBAR

> **AURREKONTUA.** Inbertsioetarako inoizko diru gutxienerako aurrekontua onartu zuten abenduan. Udalkutxara itzuli beharreko diruak baldintzatu du aurrekontua.

ASB, DRT, Federazioa eta udala, bat eginda

Kirola - DURANGO

> **SEXU ERASOA.** Durangokoneska batzuek 2016ko irailean Baionako ASB errugbi taldeko jokalaririk batzuen partetik jasan zituzten eraso matxisten aurrean gaitzespen bateratua egin zuten, urte hasieran, ASBk, DRTk, federazioak eta udalak.



**LASTER, KALITATEZKO
27 ETXEBIZITZA,
GARAJEAK ETA
LOKAL KOMERTZIALAK**



- TERRAZA HANDIAK
- ESPAZIO ZABALAK
- INTERNETERAKO DOAKO KONEXIOA
- HORMA ARMAIRUAK
- ENERGIA ERAGINKORTASUN HANDIKO ETXEBIZITZAK

94 681 44 95 / 650 397 007 ERTZAINZAREN BIRIBILGUNEAN,
www.promotoraargolabe.com KURUTZIAGA ONDOAN



L.E.

Hamabi pilotari zornotzar dabilta emakumeen Master Cup torneoan

📍 **Kirola** - ZORNOTZA

> **PILOTA.** Urtarrilean abiatu zuten Emakumeen Master Cup txapelketa 75 pilotarik, eta horietatik 12 Erdu pilota klubeko kide zornotzarrak ziren. Sei bikote aurkeztu zituzten txapelketera, eta torneoan ordezkaritza zabalena daukan herria izan zen Zornotza. Euren semeak pilota entrenamenduetara eramaten zituzten ama batzuek sortutakoa da Erdu pilota kluba. Gazteagoa den kide bat kenduta, gainontzekoek 25 eta

50 urte artean dituzte. “Pilota gustatzen zaigulako gabilta, baina, etorkizunera begira, neska gazteei bide berriak irekitzen laguntzea ere gura dugu”, azaldu zuen Garbiñe Artaraz taldeko kideak. Lehenengo, helduen taldea egonkortu, baina gero gaztetxoaren eremua lantzen hastea zutela helburu azaldu zuten. “Finala Zornotzako pilotari batek jokatzeko itzela litzateke”, adierazi zuen Dayneris Del Val taldeko kideak.



Andoni Aizpururen eskutik txotx, Uxarten

📍 **Herririk herri** - ZORNOTZA

> **OSTALARITZA.** Lehenengo txotxa egin zuten, urtarrilaren 18an, Zornotzako Uxarte sagardotegian. Sagardo ekoizleak eta instituzioetako ordezkariak batu ziren ekitaldian, eta Andoni Aizpuru telebistako aurkezle elorriarra izan zen ekitaldi horretako gonbidatua.



Proiektu berria abiatu du Marixurrike elkarteak

📍 **Herririk herri** - ATXONDO

> **HEZKUNTZA.** Askotariko eragileen iriztiak jasota, aurrera begirako proiektu berria abiatu zuen Marixurrike aisialdi elkarteak. Herritarren hartu-emanak bultzatzeko ekintzak diseinatu zituzten.



825 euro batu dituzte Garaiko Errematan

📍 **Herririk herri** - GARAI

> **TRADIZIOA.** Ohitura den legez, San Anton egunez egin zuten Garaiko Erremata, eta 825 euro batu zituzten baserriko produktuen enkanteagaz. Batutako diruaren erdia elizako gastuetara bideratu zuten, eta beste erdia Caritasi eman zioten.

Errefuxiatuentzako laguntza, Durangotik

📍 **Herririk herri** - DURANGO

> **GIZA ESKUBIDEAK.** Aita Menni ospitalean errefuxiatuentzat neguko arropa biltzeko abiatu zuten kanpainagaz bat egin zuen Durangoko erresidentziak. Durangon 7.000 kilo arropa batu zituzten. Arrasaten eta Bilbon bildutakoa batuta, 22.000 kilo. Jendearen erantzuna handia izan zen. Aita Menni ospitaleko Egoitz Zabalak nabarmendu zuenez, “jendeak zerbait egitea behar du, eurekin gaudela erakusteko beharrezana daukagu”.



Aldundiaren bulegoa, Askatasun Etorbidean

📍 **Herririk herri** - DURANGALDEA

> **ADMINISTRAZIOA.** Urte hasieran zabaldu zuen Bizkaiko Aldundiak bere lehenengo bulego integrala Durangoko Askatasun Etorbidean. Ordutik, A-8ko autobideko diru-laguntzak edo familia ugarienak eskatzeko tramiteak egiteko, zein beste 148 tramitetarako, Durangaldeko biztanleek ez dute Bilboraino joan beharrik.





Felix eta Juanito Uribarri omenaldia

Kirola - BERRIZ

> **PILOTA.** Oizpe pilota eskolan 30 urtez entrenatzaile ibili dira Felix eta Juanito Uribarri anaiak. Herriko pilotazaleek omenaldi hunkigarria egin zieten.

Amagoia Salazarrena da Elorriko oroigarria

Akuilua - ELORRIO

> **ARTISAUTZA.** Amagoia Salazarrek sorturiko zintzilikario bat eta brotze bat hautatu zituzten Elorriko oroigarri izateko. Argiñetako estela eta elorri hosto bat dira oroigarrietan agertzen diren irudiak.



Josu Presa suhiltzaile eta antzezle lanetan

Akuilua - IURRETA



> **ANTZERKIA.** Josu Presa sodupearrak Iurretako suhiltzaile etxean egiten zuen lan, maiatzean erretiroa hartu zuen arte. “Suhiltzaile izatea da nire bizitza, asko maite dut ogibide hau, baina oso lan gogorra da, eta antzerkiak bizipoza ematen dit”, adierazi zuen Presak ANBOTOrri eskainirik elkarrizketan. “Antzerkia ogibide hau eramateko modu bat da”, esan zuen. “Beste norbait izateko aukera ematen du sudur gorriak, barruan daramazuna ateratzeko aukera”.

2007an Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen *Suhiltzaile izan nahi dut* ikuskizunean parte hartu zuen, Donostiako suhiltzaileekin batera. Suhiltzaileen lana zelakoa den islatzen zuen ikuskizunak. Aspaldiko harremana dauka Presak pailazo gipuzkoarrekin, eta hainbat proiektutan kolaboratu izan du.



60 lagunetik gora, Aramotzen auzolanean

Herririk herri - DURANGO

> **HIRIGINTZA.** Aramotzetik Fumbarri enpresara bitarteko erreka ingurua eta sasitza garbitu zituzten, urte hasieran, Herria eta Aramotzeko auzo elkarteek auzolanean. 60 herritar baino gehiago joan ziren lanera.

June Arbeo eta Aritz Villa, krosean garaile

Kirola - DURANGO

> **ATLETISMOA.** Durangaldea Running taldeko June Arbeok eta Aritz Villak oso emaitza onak lortu zituzten urtarrilera arte egin zituzten lau krosetan. “Gogotsu” zebiltzala adierazi zuten, eta motibazioak asko laguntzen duela.



Baserria zure eskuetan

Leche BIZKAIA Esnea

www.bizkaiaesnea.com



Otxandioko tabernariak lapurretekin kezkatuta

▣ **Herririk herri** - OTXANDIO

> **GIZARTEA.** Aurreko urte bietan Otxandioko taberna eta dendetan izan ziren lapurretek kezkatuta, Ertzaintzagaz batu ziren tabernariak otsailean. “Presentzia poliziala areagotzea ez da nahikoa, lapurrak harrapatu ditzatela gura dugu”, adierazi zuten ANBOTO aste-karian Jabi Axpe, Nahia Gomez eta Jabi Gorrotxa tabernari otxandiarrek. Urtarrilean herrian bolo-bolo zebilen

lapurreten gaia. Ertzaintzak “informazio asko baina irtenbide gutxi” eskaini zizkiela kritikatu zuten ostalariek.

Otxandioko taberna eta denda denak kale berean eta bata bestearen ondoan daude, erdiguneko Artekalen. Horrek, denbora gutxian hainbat tokitan sartzeko modua ahalbidetu zien lapurrei. Lapurreta bakoitzean hainbat tokitan sartzen ziren.

Jabi Gorrotxaren tabernan bederatzid bider sartu ziren, eta “kokoteraino” zegoela azpimarratu zuen.

Martxoan, Otxandioko lapurretekin lotura izan zezakeelakoan, 28 urteko gizon ezko bat atxilotu zuen Ertzaintzak, Bilbon. Ondasunaren kontrako delitua egotzi zioten. Lapurretetan inplikatur egon zitekeen jende gehiagoren bila aritu zen Ertzaintza urte hasieran.



Barraskiko kaltetuetako bati, 58.999 euro bueltan

▣ **Herririk herri** - ATXONDO

> **HIRIGINTZA.** Bankiak Barraskiko etxebizitzaren auziko kaltetuetako bati 58.999 euro itzuli beharko zizkiola agindu zuen, otsail hasieran, Valentziako Lehen Auzitegiko Epaitegiaren sententzia batek. “Bankuak egin beharrekoak egin ez zituzenez, orain

bera bihurtu da erantzule nagusia. Bera da Norvisaren abal-emailea”, adierazi zuen kaltetuaren abokatu bulegoko Marta Serra zuzendariak. “Sei urteren ostean, hasi da justizia egiten”.

2008an Norvisa enpresak bost eraikinekoko eta 52 etxebizitzako proiektua hasi zuen Atxondoko Barraskin. Hiru fasetan burutzekoak ziren etxebizitzak, baina bakararra ere ez zien jabeei entregatu.

OTXANDIOKO UDALA

Tel.: 945 450 020

www.otxandio.eus

Askatasuna eta elkartasuna,
urte osorako, mundu osorako



OTXANDIOKO
UDALA



Faouzia Ben Omar: islama euskaraz

Berbaz - ABADIÑO

> **ERLIJIOA.** Magisteritza, EGA eta Espainiako Batzorde Islamikoaren ziurtagiria eskuratuta, hezkuntza publikoan islama euskaraz irakasteko prestatu den Faouzia Ben Omar Akhlof (1987, Tetuan, Maroko), elkarrizketatu zuen ANBOTOk otsailean. Sei urte zituenetik Abadiñon bizi da.

Ben Omarrek azaldu zuenez, Bizkaiko sei ikastetxetan irakasten zuten islama joan zen ikasturtean, tartean, Berrizen. “Badaude ikastetxeak eskari nahikoa dutenak islama ikasteko, baina ez dago irakaslerik”, azaldu zuen. Hautazko ikasgaia da, baina, azaldu zuenez, guraso askok ez dakite aukera hori dagoela. Horregatik, informazioa ematen dute eskoletan. “Erligio katolikoa ez ezik, erlijio islamiara ere ikasteko aukera egotea egokia da”, azpimarratu zuen.



Isoid alkatea 1,8 milioiko isunaz azalpenak ematen

Herririk herri - BERRIZ

> **HIRIGINTZA.** Berriz Susa erakunde publikoak 2006an egindako esleipen bat ez zela legezkoa izan adierazi zuen epaitegiak 2016ko apirilean, eta Berrizko Udalari

agindu zion enpresa horri 1.823.526,84 euroko kalteordaina ematea.

Epaia kaleratu zenetik 10 hilabetera, otsailean, jendaurreko azalpenak eman zizuten Orland Isoird alkateak eta Juan Landa abokatuak. EH Bilduk eta *Berriz 1,8 milioi zergatik?* plataformak hileak zermatzaten azalpenak eskatzen.



Sapuherrri boleibol taldeko jokariak

Kirola - DURANGO

> **BOLEIBOLA.** Durangoko Sapuherrri boleibol taldeko neskek Euskal Herriko senior mailako bigarren mailan jokatzen hasi dira aurten. “Dugun dena eman eta partiduetan disfrutatzea da gure helburua”, adierazi zuten taldekideek.

Liburutegi zaharrea gazte lokala atondu dute

Herririk herri - MAÑARIA

> **GAZTERIA.** Mañariko gaztetxoek bilgune berri bat dute uda aurretik Liburutegi zaharrea. 2017rako udal aurrekontua osatzeko gazteekin egindako parte-hartze prozesuko ondorio nagusietako bat bilgune baten beharra zegoela izan zen, eta martxan da dagoeneko.



Zatoz gu ezagutzera

94 681 00 50

sanjose@durangojesuitak.org

www.informazaitetz.eus

jta

JESUITAK

Durango

San Jose Ikastetxea



Rio de Oro, Herriaren testiguagaz

Herririk herri - DURANGALDEA

> **GIZARTEA.** Sahararen aldeko karabana solidarioaren ardura hartu du, aurtan, Rio de Oro elkarteak, Herria elkartearen orde. Otsailean Periko Arevalo Herriako kideak adierazi zuen “Rio de Oro animatu izana lasaigarria” zela Herriako kideentzat. Mikel del Arco Rio de Oro elkarteak azpimarratu zuen “lekukoa errespetu handiz” hartuko zutela, “Herriak oso lan ona egin duelako”, eta “aurrera egiteko ilusioagaz” eta gogotsu zeudela.

Otsailaren 25ean irten zen euskal karabana Alacanteko porturantz, handik Oranera (Aljeria) bidaiatzeko. Durangaldetik Angel Alejo gidari zuen kamioia atera zen. 23.600 kilo elikagai, 400 kilo arropa, 50 kaxa konpresa, labe bat, ogia oratzeko makina bat eta 750 kilo zementu zeramatzen kamioiak.

Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Garai, Iurreta, Mallabia eta Zaldibarko udalek zein Amankomunazgoak 34.000 euro eman zituzten diru-laguntzatan.



Alfredo Alonso, Chioseko esperientziaz

Herririk herri - ABADIÑO

> **ELKARTASUNA.** Urtarrilaren 2an abiatu zen Abadiñon bizi den Alfredo Alonso Iri-sarri (Iruñea, 1968) Greziako Chios irlara. Errefuxiatuentzako jakiak maitasunez

prestatu eta banatzen dituen Zaporeak proiektuagaz bat eginda, 22 egun egin zituen Souda errefuxiatuen kanpamentuan. “Chiosen aurrez aurre ikusi ditut Siriatic ihesi telebistan ikusitako errefuxiatuak”, adierazi zuen elkarrizketan. “Emozionalki oso gogorra izan da”, aitortu zuen Alonsok.



Iraia Garcia korrikalariak inoizko emaitzarik onena

Kirola - ZORNOTZA

> **ATLETISMOA.** Euskadiko txapelketan urrezko domina eta Europako taldekako txapelketan zilarrezkoa lortu berrikan honakoa adierazi zuen elkarrizketan: “Inguruko laguntzagaz jarraitzea lortu dut, eta esan dezaket inoizko emaitzarik onenak lortzen nabilela”.

Ingurumen iraunkorraren Berdeago azoka

Herririk herri - DURANGO



> **AZOKA.** Ingurumen iraunkorrari buruzko Berdeago azoka egin zuten otsaileko lehenengo bi asteburuetan Durangoko Landako Gunean. Lehenengoz, bi asteburutan egin zuten, eta energiari buruzko ohiko atalaz gainera, produktu ekologikoei ere egin zieten lekua.



Asier Aspuru trinkete jokari abadiñarra

Kirola - ABADIÑO

> **PILOTA.** San Blas txapelketako finalerdien atarian, “trinketean aukera gehiago ditudala ikusten dut”, adierazi zuen Asier Aspuru (Abadiño, 1991) ANBOTO astekarian.

Mikel Zuluaga: ‘Ongi etorri errefuxiatuak’

Berbaz - ZORNOTZA



> **ELKARTASUNA.** Zornotza Aretoak antolatutako Ongi etorri errefuxiatuak zineklubean parte hartu zuen, otsailean, Mikel Zuluaga plataforma horretako kideak (Bilbo, 1955). Desobedientzia zibilaz eta errefuxiatuez aritu zen.



Ernairen kongresuaren berri, gazteen ahotik

Herririk herri - DURANGALDEA

> **POLITIKA.** Ane Amantegi (Durango, 1994), Aitor Del Hierro (Zaldibar, 1997) eta Maialen Arteaga (Zornotza, 1998) Ernai antolakundeko kideek azaldu zuten, apirilean amaitu zen Ernairen II. Kongresuak emandakoa. Eurekin batera, Durangaldeko 100 gaztek parte hartu zuten 2016ko urrian, *Inurritegia, eguneroko borrokan eraikia* leloagaz abiatu zuten prozesuan. “Gazte mugimenduaren parte aktibo izan gura dugu, eta alternatiba zehatzak planteatu”, adierazi zuten. Abertzaletasunetik haratago, independentzia zergatik gura duten eztabaidatu zuten prozesu horren barruan, Amantegik, Del Hierrok eta Arteagak azaldu zuten.

“Babesgabe” sentitzen direla diote eitzagarrek

Herririk herri - ZALDIBAR

> **GARRAIOA.** Hiru urtez, Ermuako saihe-bidea eraikitzeko burutu zituzten lanek zuzenean eragin zieten trenbidearen eta autobidearen artean dagoen Eitzagako auzotarrei. Saihebidetako lanen parterik handiena amaituta, Euskal Trenbide Sareak hasi zituen lanek zeuzkaten Eitzagako auzokideak kezkatuta. Horrela azaldu zuten ANBOTO astekarian.



Sinadura bilketa, gazte lokal bat eskatzeko

Herririk herri - IURRETA

> **GAZTERIA.** Gazteleku baten irekiera eskatzeko 12 eta 13 urte arteko gazteen talde batek otsailean abiatu zuten sinadura bilketa bat egin zuten 200 iurretarek. Iurretako Udalean aurkeztu zuten eskaera hori, idatziz, otsail erdialdean. Ibarretxe kultur etxeko ludotekan 10 urtera arteko gazteek duten espaziotik kanpo, adin horretatik gorakoek ez dute aisialdiaz gozatzeko kalea ez den espaziorik. Eskari horregaz hasi zuten sinadura bilketa.



Urak sortzen du bizia.

Uraren kudeaketa egokiak,

gure **ONGIZATEA**











Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia



50
1967-2017

www.consorciodedeaguas.eus



Bonbardaketaren 80. urteurrenean, egileak auzitara eramateko kereila sartu dute

▣ **Herririk herri** - DURANGO

> **MARTXOAK 31.** 1937ko martxoaren 31n eta apirilaren 2an eta 4an, italiar faxistek Durango eta inguruak bonbardatu zituzten kolpisten mesedetan. 80 urte joan dira harrezkero, eta Gerediaga Elkarteak Jon Irazabalen ikerketa lanari esker, egileak auzitara eramateko bidea hasi dute. Madrilera eta Erromara artxiboetara egindako bisitetan bonbar-

daketaren egileak identifikatzea lortu du Irazabalek, eta Durangoko Udalak pilotu italiar horien aurkako kereila sartu zuen uztailean, Ezkurdiko epaitegian.

“Garaia da egia bere osotasunean jakin ahal izateko, eta, aldi berean, justizia eskatzeko”, adierazi zuen Aitziber Irigoras Durangoko alkateak prentsurrekoan. Alkateagaz batera, Anaís Fran-

quesa abokatuak —Bartzelonako kereila ere landu du— eta Andoni Barreña Durango 1936 Kultur Elkarteko kideak parte hartu zuten. Franquesak “dudarik gabe gizateriaren aurkako krimena” izan zela azpimarratu zuen. “Gizateriaren aurkako krimena denez, ez da preskribitzen”, nabarmendu zuen abokatu katalanak.



Guenetxea izendatu dute Tokikom-eko presidente

▣ **Herririk herri** - DURANGALDEA

> **TOKIKOM.** Jone Guenetxea ANBOTOk zuzendaria Tokikom tokiko hedabideen bateraguneko presidente izendatu zuten martxoan. Urko Aristiren lekukoa hartu zuen. Tokikom-ek aurrera begira dituen erronken gainean mintzatu zen. “Edizio sistema bateratua jarriko dugu martxan lan prozesuak eraginkorragoak egiteko. Formakuntza ere helburuetako bat da, kazetaritza, kudeaketa zein alde komertzialean. Kudeaketa aurreratuaren programan ere sakonduko dugu. Elkarte bat garen arren, kudeaketan ikuspuntu enpresariala aplikatzea garrantzitsua dela uste dut”, adierazi du kazetariak.

Musika klasikoaren Bilboko jaialdian

▣ **Kultura** - DURANGO

> **MUSIKA.** Durangoko Bartolome Ertzi-lla Musika Eskolako 18 ikasleek osaturiko orkestrak hirugarren urtez parte hartu zuen Bilboko ‘Musika-Música’ jaialdian, martxoan. Izena ematen duten EAEko eta Estatuko Musika Eskoletako hautagaien artean aukeraketa egiten dute antolatzaileek. Eunate Zarrabeitia irakasleak gidatutako taldeak 13 urtetik 30 bat urtera arteko ikasleak batu zituen. Biolinak, biolak, biolontxeloak, kontrabaxuak eta pianoak osatu zuten ganbera-orkestra durangarra. Smetana eta Dvorak konposatzaile bohemiarren obrak eskaini zituzten.



Bernatarren protestak autobus geltokia eskatuz

▣ **Herririk herri** - ZORNOTZA

> **PROTESTA.** N-634 errepidean, Arriandi eta Berna artean, hainbat lan burutu ditu Aldundiak. Albo kalteak ere eragin ditu Berna eta Bernabeitiko auzotarren kasuan: Durango-Zornotza norabidean auzora zuzenean sartzeko aukera kendu zieten, besteak beste, eta Eubara joan-etorria egin behar zuten. Ondorioz, martxoan errepidera irten eta trafikoa hainbat bider geratu zuten, euren aldarrikapenak lau haizetara zabalduz. Aldundiak hirugarren errei bat egin du errepidearen erdian, auzotarrak auzora sartzeko. Etor-kizunean Eubara orduko biribilgune bat egiteko asmoa ere badu Aldundiak.



“Herri kurduak gogoan ditu beti euskaldunak”

Herririk herri - DURANGO

> **SENIDETZEA.** Durango eta Kobane hiri kurdua senidetu egin dira. Bonbardatu-tako herriak dira biak. Kobanek eraso bortitza jasan zuen Daex-en (Estatu Islamikoa arabierazko akronimoan) partetik 2014an. Kobaneko ordezkari lez Durangon egon da Mustafa Ebdî, eta hango esperientzia kontatu zuen. “Herri kurduak gogoan ditu beti euskaldunak”, adierazi zuen.

“Herritarrak museora erakarri gura ditugu”

Berbaz - DURANGO



> **MUSEOA.** Garazi Arrizabalagak Durangoko Arte eta Historia Museoaren ardura hartu zuen 2016ko ekainean. Aurten Durangoko bonbardaketako urteurrenaren harira —martxoak 31— Picasso artistaren obra batzuk ekarri dituzte museora. Picassok egindako bi grabatu —bakoitzak bederatzi bineta ditu— ekarri dituzte. “Aukera izugarria da, inoiz izan ez dena, eta duen garrantziaz jabetu behar dugu”, adierazi zuen Arrizabalagak. Etorkizunean Txillidaren erakusketa bat ere egin gura dutela aurreratu zuen, museoan badituztelako haren grabatu batzuk.

Fraile hurreratzeko eskaerak, atea itxita

Herririk herri - DURANGO

> **GIZARTEA.** Gorka Fraile preso durangarra Euskal Herrira ekartzeko eskaera ez du tramitera onartu Konstituzionalak. Minbizia topatu zioten 2015ean, eta gaixo larrien zerrendan dauka Etxeratek. Hurrengo pausoa Europako Giza Eskubideen Auzitegira jotzea da, baina erantzuna jaso orduko urteak joan daitezke. “Gorkaren kasua larria da, eta ezin dugu 5 urtez itxaron”, salatu zuen Ainhoa Sergio senideak.





Korrika, Otxandiotik Euskal Herrira

▣ **Herririk herri** - OTXANDIO

> **EUSKARA.** Aurten hogeigarren edizioa bete du Korrikak eta Durangaldean berezia izan da. Izan ere, eskualdean aurrenekoz eman ditu lehenengo pausoak, Otxandion. Korrikak merezi duen moduko hasiera ekitaldia antolatu zuten, hein handian herritarrek elkarlanean egindako ahaleginari esker.

Otxandioko plaza askotariko ikusizunak hartzeko eszenatoki erraldoi bihurtu zuten bertaratu ziren milaka lagunengozagarri.

Joseba Kanpo gogoratu zuten Korrika ireki zuen lehenengo kilometroa Joseba Kanpo Korrikaren sortzaile otxandiarraren omenezkoa izan zen. Orain lau urte hil zen Kanpo. Korrikaren beste zenbait sortzaile ere izan ziren hasierako kilometroan, 20. edizioko omenduak ziren eta. Kanpo 1980an Korrika sortu eta lehenengo aldia antolatu zuen batzordeko partaidea izan zen. Ondoren, Korrikaren alde lanean jarraitu zuen beste urte askoan.

Logelaren estreinaldia 'Wall-E' filmari inspiratuta

▣ **Kultura** - ELORRIO



> **ANTZERKIA.** Elorrioko Logela Multimedialeak antzerkia eta proiektzioak uztartzen dituen *Drag-E* lana estreinatu zuen, martxoan, Bilboko Loraldia jaialdian. *Wall-E* pelikulatik hartu dute inspirazioa. "Pelikula horren hasierako pasarteak abiapuntu hartuta, bestelako gidoi bat eta estetika bat sortu ditugu. *Wall-E* bezala, *Drag-E* ere 2800. urtean kokaturiko istorioa da, eta, filmean bezala, ez dago naturarrik munduan. Egoera horri, dramatik barik, umoretik eta zientzia fikziotik begiratu gura izan diogu", adierazi zuen Logelako Ander Garaizabalek.



Oizko kobazulotik 350 kilo zabor atera dituzte

▣ **Herririk herri** - BERRIZ

> **ESPELEOLOGIA.** Euskal Espeleologoien Elkargoko (EEE) hainbat kidek Sarri mendiko kobazuloa garbitu zuten. Guztira, 350 kilo zabor batu eta atera zituzten handik. Sarri mendiko kobazuloa Oiz mendiaren hegoaldean dago, Sarria eta Andikoa auzoetatik gertu dagoen tontor txiki batean, hain zuzen ere.

Euskal espeleologia bultzatzea helburu duen taldeko kideek adierazi zuten, kobazuloan mota guztietako zaborra aurkitu zuten. Esaterako, aulki bat, hainbat oinetako, erloju bat, zenbait plastiko mota, zaborrez beteriko poltsa ugari, metal zatiak... atera zituzten bertatik.

Korrika egiteko talde berria Durangon

▣ **Kirola** - DURANGO

> **KORRIKA.** Durango Kirol Taldeko Sonia Ocejak, Begoña Martinezek eta Eva Muñoak korrika egiteko talde berria sortu dute emakumeentzat. "Durangon korrika egiteko talde baten beharra ikusten genuen. Ikusi dugu inguruan hainbat emakumek pautarik jarraitu gabe egiten dutela korrika. Beraz, emakume horiek batu eta denok elkarregaz korrika egitea da helburua", azaldu zuen Ocejak.



Bi ahots eta bi gitarra akustikoan abesteko

▣ **Kultura** - DURANGALDEA

> **MUSIKA.** Usue Martinez durangarrak eta Nerea Alza iurretarrak bi ahotsetan eta bi gitarragaz kontzertu akustikoa eskaini zuten martxoan Iurretako 'Auzorik auzo' egitarauaren barruan, Goiuriko Santi Kurutzen. Bertsioak jota ekin zioten ibilbide musikari. Ondoren, bakoitza bere aldetik sortzen aritu zen, eta elkarregaz konposatzeko astia hartu gura zuten. Egitasmo ilusionagarria dela aitortu zuten.

Protestak Euskotrenen zonifikazioaren kontra

Herririk herri - DURANGALDEA

> **GARRAIOA.** Urte hasieran Euskotrenek zonifikazio aldaketa egin zuen Berriz eta Zaldibar laugarren zonaldeetik bosgarrenera pasatuz. Bi herrietako erabiltzaileek hainbat protesta egin zituzten eta ekainean, berriro ere, Durangaldeko zonaldera pasatu zituen Euskotrenek bi herriak.



Santi Onaindia gogoratzuz ekitaldia egin dute

Herririk herri - ZORNOTZA

> **OROIMEN EKITALDIA.** Sortu zeneko 50. urteurrena ospatzeko ekintza sortaren barruan, Zornotzako Udabarri Dantza Taldeak Santi Onaindia (1909-1996) gogoratzeko ekitaldia antolatu zuen. Oroimen ekitaldiaren barruan, egun Larreako komentu inguruan Santi Onaindia gogoratzeko dagoen bustoaren alboan Gernikako Arbolaren kimu bat landatu zuten.

Dantza taldearen hasierako urteetan, Onaindiaren laguntza, babesa eta sostengua garrantzitsuak izan ziren taldeak aurrera jarraitu zezan. 52 urte eman zituen Larreako karmeldar komentuan. Euskara eta euskal kultura sustatzeko lan handia egin zuen. Idazle eta itzultzaile jardun zuen, eta 1979tik ohorezko euskaltzain izan zen.



Errefuxiatu kurduak, kamioi batean ezkutatuta

Herririk herri - ELORRIO

> **ERREFUXIATUAK.** Kurdistanetik ihesi, zazpi errefuxiatu kamioi baten barruan ezkutatuta aurkitu zituzten martxoan. Durangoko Udalak larrialdietako etxe bi ipi-

ni zituen gerratik ihesi zetozen kurduak behin-behinean hartzeko. Elorrioko zein Durangoko udalek elkartasuna adierazi zieten errefuxiatuei. Ondoren, errefuxiatuen aldeko CEAR-Euskadi elkarteak baieztatu zuenez, asilo politikoa eskatu zioten espainiar estatuari. Gai honek zalaparta mediatiko handia piztu zuen.



Izarzugazak atxilo eman zuen egun bat Turkian

Herririk herri - OTXANDIO

> **GIZARTEA.** Kurduen Newroz jaialdiari babesa ematera joandako euskal ordezkartzako kidea zen Eduardo Izarzugaza otxandierra. Turkiako poliziak atxilotu egin zuen mugikorreko argazki bategatik. Egun batera askatu zuten.



Derrigorrezko Hezkuntza eskaintza · Batxilergoa · Lanbide heziketa

Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH · Batxilergoa

Haur Hezkuntzako Goi Teknikari titulua · Gaitasun profesionalak: arreta soziosanitarioa, ur sorosle...



www.ibaizabalikastola.eus



www.kurutziagaikastola.eus

50 urte!



Garateren kontrako sexu abusuen salaketa ez da epaiketara heldu

📍 **Herririk herri** - DURANGO

> **SALAKETA.** Fran Garate alderdi popularreko zinegotzia atxilotu egin zuten sexu abusuengatik salatuta. Ondoren, salaketa artxibatu egin zuen Bizkaiko Auzitegiak, emakumearen errekurtsioa atzera botata. Epaileak ez zuen prozesu judizialik zabaltzeko arrazoirik ikusten.

Hala ere, Durangoko Plataforma Feministak salaketa sinesten jarraitzen du.

“Erabat sinestekoa da erasoaren salaketa; kasua artxibatu izanak ez du esan gura eraso gertatu ez zenik”, adierazi zuten prentsara bidalitako oharrean. Era berean, sinadurak biltzeari ekin zioten Fran Garateren dimisioa eskatzeko.

Udalbatzar beroak eta polemikoak izan ziren Durangon Garateren auzia pil-pilean izan zen asteetan. Garate zinego-

tziari dimititzeko eskaria egin zion udalbatzarrak martxoko osoko bilkuran, baina zinegotziak ez zuen dimititu. Horregatik, liberazioa kentzeko proposamena aurkeztu zuen EH Bilduk. Baina ez zen aurrera atera, Herriaren Eskubi-deak babestu baitzuen soilik.

Hurrengo udalbatzarrean mugimendu feministako 40 bat lagunek udaleko osoko bilkura eten zuten. Modu kurioso erabili zuten hori lortzeko. Aurpegian maskarak jarrita, bafle batetik musika ipini eta kantuan eta dantzan hasi ziren, *No woman, no cry* abesti ezagunaren bertsi bat eginaz.



Igerilekuan lanean ari zela langile bat hil da

📍 **Herririk herri** - ZORNOTZA

> **LAN ISTRIPUA.** Jauregizahar inguruan dauden igerilekuetan garbiketa lanak egiten zebilela, 48 urteko langile zornotzar bat hil zen. Udalak azpikontrataturako enpresa baterako lanean zebilen. Udaleko eta enpresako langile batzordeek lanuzteetara deitu eta kontzentrazioa burutu zuten, sindikatuetakako ordezkariak eta udaleko hainbat zinegotzi batu zituen.



Itsuak eta Rekaldek, diskoa elkarlanean

📍 **Kultura** - DURANGO

> **DISKOA.** Paddy Rekalde idazleak eta Itsua musikariak *Izotza eta sua* diskoan batu zituzten batakaren poemak eta bestearen doinuak. Platerueneko kontzertuan aurkeztu zuten euren proposamena. “Estimatzen dugu batak bestearen lana, bai musika mailan, bai literaturan. Arlo desberdinak dira gureak, baina ‘mundu’ berekoak”, adierazi zuen Rekaldek. Letrak Susa argitaletxeagaz kaleratu zuen *Spray* poema liburukoak dira, batez ere. Sorkuntzari ez diotela “inolako mugarik jarri”, azaldu zuen Itsuak. “Uste dut horrek lagundu egin digula gura genuen soinua lortzen”, gaineratu zuten.

“Biztanleriaren %10 adimen handikoa da”

📍 **Berbaz** - DURANGO

> **ELKARRIZKETA.** Adimen handiko seme-alaben gurasoak batzen ditu Aupatuz elkarteak, eta bertako kidea da Inma Unzueta. Adimen handiko umeek behar duten arreta jasotzearen garrantzia azpimarratu du. “Heren batek eskola-porrota izaten du, eta beste horrenbestek gai direna baino erredimendu baxuagoa dute. Hori ere eskola-porrota kontsideratzen da”, adierazi du.



“Jai batzordekoek eskatuta animatu ginen”

Akuilua - IURRETA



> **EUSKAL EZKONTZA.** Jon Badiola eta Itsasne Aldekoa-Otalora Oromiñon egindako Euskal Ezkontzako ezkongaiak izan ziren. 1902an egiten zen antzera prestatu zuten eguna. “Desberdina da eguna, oso parte-hartzailea. Pertsonaia asko daude, eta jendea behar da. Jantzkerak, giroa... egun berezia da”, adierazi zuten.

“Ezagutu beharreko leku ederra da Kuba”

Akuilua - ABADIÑO

> **BIDAIA.** Bizikleta hartu eta Costa Rica, Mexiko, Kubatik... ibili zen Iker Salterain abadiñarra. “Hango kultura, pertsonak... ezagutu, ikusi eta esperientzia horregaz nire barrua aberastu dut”.



“Egunerokotasunerako termometroa da twitter”

Berbaz - GARAI

> **KOMUNIKAZIOA.** Uxune Martinez twitterreko txiolari aktibo arrunten hamar lehenengoan artean dago. Euskampus Fundazioko kidea da.

Karlos Martinezen lanak Guggenheim museoan

Kultura - DURANGO

> **ERAKUSKETA.** Karlos Martinez durangarraren lanak erakusketa kolektibo bateko parte izan dira Guggenheim-en. Kristalezko laminen gainean esmalte sintetikoekin egindako lanekin gizarteko antsietateen gaineko hausnarketa proposatu zuen.



IURRETAKO UDALA
 Tel.: 946 201 200
 www.iurreta.eus







Kurutziagan, hondakinekin konposta

📍 **Herririk herri** - DURANGO

> **BIRZIKLAPENA.** Kurutziaga ikastolako jantokitik baserri batera 100 kilo organiko inguru eramaten dute egunero, bertan konposta egiten erabiltzeko. IKT4-Azterlan zentroak gidatzen du esperientzia. Apirilean abiatu zuten egitasmoa eta abendura arte martxan izan zuten. Azken helburua etorkizunean ekimena finkatzea eta zabaltzea da instituzioen laguntzagaz. Kurutziagako jantokiak 100 kilo organiko sortzen ditu egunero. Hori guztia Iñigo Etxebarria

nekazari iurretarraren baserrian pilatzen da konposta egiteko. “Urtero, 40-60 tona sats ekartzen dugu ortura. Zentzu horretan, autonomoak izatea gura dugu honegaz guztiagaz, behar dugun ongarri guztia geuk sortzea”, azaldu zuen Etxebarriak. Proba pilotuagaz, ekimena martxan jartzeak zelako gastua eduki duen aztertuko dute. “Gasolinan eta lan denboran zelako kostua daukan kalkulatu dugu”, IKT4-Azterlaneko Ander Areitoaurtenaren esanetan.

Donien Atxa erortzeak zauritu arin bi eragin ditu

📍 **Herririk herri** - ABADIÑO



> **JAIK.** San Prudentzio jaiak ezbehar batez hasi zituzten. Donien Atxa erori egin zen. Enborraren beheko alde sartzeko zuloko tresna metalikoak buelta eman, eta txopoa ez zen zuloan sartu. Gero, ezin izan zioten eutsi. Zauritu arin bi eragin zituen. Horren aurrean, Abadiño-ko Udalak neurriak iragarritzuten. “Txopoa beti jausi ahalko da, baina, hemendik aurrera, bere perimetroan jendea egotea saihestuko dugu”, adierazi zuen Jose Luis Navarro alkateak. Adibidez, aurrerantzean, gertuen dauden barandetan ez da jenderik egongo.



Errefuxiatuen eskubideen alde, Gernikara martxa

📍 **Herririk herri** - DURANGO

> **ELKARTASUNA.** Errefuxiatuen egoera salatzeko, egun osoko ekitaldia antolatu zuten Gernikan, eta Durangoko Ongi etorri errefuxiatuak plataformak jardun zuen antolaketa. “Errefuxiatuen egoera isilean gertatzen ari da. Gertatzen ari dena hedabideetan azalean egon beharko litzateke egunero”, adierazi zuten plataformako Julene Idoatek eta Isabel Rodriguezek. Ildo horretatik, “kontzientziak mugituz pertsona hauen egoera aldatzea” zen martxaren helburua. “Gerraren kontra gaudela entzuten dut inguruan, baina, gero, kosta egiten zaigu mugitzea. Herritar moduan ez bagara kexatzen, agintariek ez dute legerik aldatuko”.

“Betidanik izan naiz jokalar lehiakorra”

📍 **Kirola** - BERRIZ

> **SASKIBALOAIA.** Xabier Arroitauregi berriztarra Durangoko Tabirako-Baqué taldean hezi da saskibaloian. Gizonen talde nagusiagaz goiko postuen borrokan aritu da aurtan. “Aitortu behar dut beti izan naizela lehiakorra. Txikitan ere amorratu egiten nintzen partidu txar bat jokatzeko banuen”, aitortu du 20 urteko gazteak.



Landare azoka jendetsua egin dute Garain

📍 **Herririk herri** - GARAI

> **AZOKA.** Eguraldi ona eta jai-giroa lagun, Garaiko Landare eta Lorezaintza Azokaren bosgarren edizio jendetsua egin zuten. Aurtengo nobedadea kontsignarena izan da. Azokara joandako bisitariak erosketak kontsignan uzteko aukera eduki dute, egun-pasa lasai egiteko, produktuak une oro aldean ibili barik. 70 lagunek erabili zuten zerbitzu berria, udal arduradunek informatu dutenez.



Aramotzeko txabolak eraitsi egin dituzte

K Herririk herri - DURANGO

> **GIZARTEA.** Durangoko Aramotz auzoko txabolak bota eta txaboletan bizi ziren hamasei pertsonak kaleratu egin zituzten apirilean. Hile bi lehenago udal ordezkariekin batzartu zirela azaldu zuten kaleratuek. “Txaboletatik joan egin behar genuela esan ziguten, irtenbiderik eman barik”, azaldu zuten. Udal arduradunek kontrakoa azaldu zuten; familia hauen egoerari “irtenbidea” bilatu guran, urtebete zeramatera instituzioen arteko elkarlanean. Udalekoek ziotenez, plan bat egin zuten pertsona hauei integraziorako baliabideak eskaintzeko. “Baliabide horiek jasotzeko baldintzarik ez zuten bete gura”, gaineratuzuten. Aramotzeko auzokideek, berriz, txabolak bertatik kentzeko eskaria egin izan dute. Auzoan egiten zebiltzan lanak hobekuntzak egiteko aprobetxatuko zituztela iragarri zuen udalak.

Txistulari durangarrak, Euskal Herriko onenak

K Kultura - DURANGO

> **TXISTULARITZA.** Euskal Herriko txistulari gazteen lehiaketan sari banaketan Bartolome Ertzilla kontserbatorioko Gorka Pagonabarraga lehenengo geratu zen, eta Iker Sagala, hirugarren.



“Numismatika isilean sufritzen den afizioa da”

K Akuilua - DURANGO

> **NUMISMATIKA.** Saltsa askotako perrexila da Juan Zorrilla. Musikaria, grafitigilea eta... numismatika zalea. Txanponak eta billeteak bildumatzan ditu.

Gerediagak kudeatzaile berria du: Arantza Atutxa

K Berbaz - DURANGO

> **KULTURA.** Otsailean hasi zen Gerediaga elkartearen lanean. “Gerediagak Durangaldearekiko sentsibilizazio sendoa duela uste dut, eta eskualdea eta horren kultur aberastasuna erakusteko zubi lan horretan jardun behar dugu”, azaldu zuen.



Faustino Sánchez, urte askoko lanari omenaldia

K Kirola - IURRETA

> **OMENALDIA.** Gaur egun urteroko hitzordu bihurtu den Iurretako Hiri Proba Faustino Sanchezek eta Atletika Iurreta elkarteko kideek sortu zuten 80ko hamarkadan. 25 bat urtez proba antolatzen egindako lanagatik omendu egin dituzte aurtun.

HIRURAK BAT
ATXONDOKO UDALA · Tel.: 946 821 009 · www.atxondo.eus



12.382 herritarren botoa, “mugarri bat” sortzeko

Herririk herri - DURANGALDEA

> **POLITIKA.** Gure Esku Dago mugimenduak antolatuta Euskal Herriko etorkizun politikoaren inguruko herri-galdeketa egin zituzten Euskal Herrian maiatzaren 7an. Durangaldeko bost herritan ere eman ahal izan zuten iritzia: Abadiño, Durangon, Elorrion, Zaldibarraren eta Zornotzan. Guztira, 12.382 herritarrek eman zuten botoa, parte hartzeraren %22,25ek.

Egun hori “mugarri bat” sortzeko baliagarri izan zen Gure Esku Dago mugimenduko kideen ustez. Elorrion lortu zuten eskualdeko partaidetza daturik onena, %34,02koa. Atzetik etorri ziren Zaldibar (%23,5), Zornotza (%22,77), Abadiño (%22,41) eta Durango (%18,80). Orokorrean, pozik agertu ziren galdeketa herrietako antolatzaileak egun horretan bizitakoagaz.

Azaroan, berriro

Azaroaren 5ean, Atxondoren eta Otxandoren txanda heldu zen. Atxondarren %31,41ek hartu zuen parte, hau da, 430 herritarrek. 324 baiezeko, 38 ezezeko, 6 zuri eta 8 baliogabe zenbatu dituzte. Era berean, 498 otxandiarrek eman zuten botoa herri-galdeketa, %46,98k. 459 baiezeko, 16 ezezeko, 14 zuri eta 9 baliogabe zenbatu zituzten.

Isaac, Petralanda familiaren bizipoza

Herririk herri - DURANGO

> **ELKARTASUNA.** Kontxi Gonzalezen eta Ricardo Petralandaren bizitza eten egin zen 2015eko ekainaren 13an, Alesander semea auto istripuan hil zenean. Azken urtebetean, bizipoza bueltatu dien umea eduki dute etxean, Isaac Tawo 3 urteko ume togotarra. Osasun arazo bategatik ekarri zuten Durangora, ebakuntza egiteko, Gizakien Lurra Gobernu Kanpoko Erakundearen eskutik.



500 lagunetik gora, Geu Beren bazkarian

Herririk herri - ZALDIBAR

> **INTEGRAZIOA.** Aniztasun funtzionala dutenen integrazioa sustatzeko, Geu Beren elkarteak urtero antolatzen duen jaialdia da Ezgaitasunaren Eguna. Aurten, maiatzean, Zaldibarren ospatu zuten egun osoko egitarau batez. Esate baterako, 500 lagunetik gora elkartu ziren bazkari herrikoian. “Berdintasunean eta errespetuan oinarrituta, lagun berriak egitera” animatu zituzten herritarrak.

Geu Beko hainbatek futboleko jokatu dute, eta horregatik, euren eta Zalduaren arteko partidu batez hasi zen eguna. Guztira, herriko hamasei elkarte inplikatu ziren Geu Beren jaialdian, udalaz gainera.



“Denok gara bat, horixe da Elorrioren gakoa”

Kirola - ELORRIO

> **FUTBOLA.** Euskal Ligako pitxitxia izan zen 2016-2017 denboraldian Itsasne Laruskain Antxia abadiñarra. Elorrio futbol taldeko kapitainetako bat izan zen, eta 26 gol sartu zituen guztira. Elizaldeko futbol zelaian batzen diren zaleei eskerrak emateko ere aprobetxatu zuen elkarrizketa. “Elorriok zale bereziak ditu, eta partidu guztiak polit egiten dituzte”, adierazi zuen Laruskainek.

Umeen "salerosketa" salatu zuten klubek

Kirola - DURANGALDEA

> **FUTBOLA.** Bizkaiko hainbat futbol klubek plataforma bat sortu zuten, beste klub batzuen jardunbidea salatzeko asmoz. Eskola kiroleko gaztetxoekin "salerosketan" dabiltzala kritikatu zuten. Horren berri eman zuten Amorebietak, Iurretako Gertasportek eta Zalduak.



Transexualitatea, ama baten ikuspegitik

Berbaz - DURANGALDEA



> **INTEGRAZIOA.** "Umea hain zoriontsu ikusten duzunean, aurrera egin behar duzula konturatzen zara". Hori nabarmendu zuen elkarrizketan Bea Severrek, ume transexual baten ama eta Chrysallis elkarreko kideak. Abadiñon eta Elorrión berbaldi bana eskaini zuen, eta bere bizipen zein iritzien berri eman zion ANBOTOri.

7 urteko umea da eurena, eta 5egaz egin zuen sexu transitoa. Hasieran ez dela erraza ohartarazi zuen Severrek. "Benetan kosta egiten zaizu ulertzea zer gertatzen ari den. Momentu horretan mundua gainera etortzen zaizu. Negar asko egin genuen, eta hilabete gogorrak izan ziren". Baina, umea zoriontsu ikusi, eta astiro-astiro egoera onartzen joan ziren. Gaiaren aurrerapausoak eman direla zioen Severrek, baina oraindik asko dagoela egiteko.



Junkera eta 'Tiliño', berriro ere elkartuta

Kultura - IURRETA

> **TRIKITIXA.** Kepa Junkera eta Jose Jabier Abasolo 'Tiliño' aspaldi ezagutu ziren, Iurretan antolatzen zen musika-tresnen jotozailen jaialdian. Junkerak kontatu zuen "emozio handiz" oroitzen dituela sasoi hartako emanaldiak.



Atara Zarata gazte taldearen obra berria

Kultura - DURANGO

> **ANTZERKIA.** Atara zarata antzerki talde gazteak obra berria estreinatu du aurten, *Eingo al deū?* izenekoak. Sexu hartuemanen buruzko lana maiatzean eskaini zuten

lehenengoz taula gainean, Plateruena kafe antzokian.

Julene Bernaola izan zen komedia estiloko obraren zuzendaria. Aktore, aldiz, Iratxe Urkiaga, Ane Moreno, Markel Ganboa, Yeray Gomez, Iker Villa, Peio Velasco eta Iker Garate ibili ziren. Denak 19 eta 29 urte arteko gazteak.

“ETXEKO NEURRIRA EGINDAKO SUKALDE ETA ALTZARIAK”

SCHMIDT ABADIÑO
 Murruta auzoa, 1/g - 178 lokala
 Eroski saltoki-gunea - ABADIÑO
www.homedesign.schmidt

SCHMIDT
 Cocinas y Muebles de Hogar



DRT, 30 urte bete dituen familia

❑ **Kirola** - DURANGO

> **ERRUGBIA.** 30 urte ez dira egunero betetzen. Durangoko Rugby Taldea 1987an jaio zen, eta aurten merezi bezala ospatu dute efemeridea. Maiatzaren 27an partiduko piloa jokatu eta eskaini zituzten egun osoan, eta, gainera, emakumeen txapelketa antolatu zuten. Gauez jaia egin zuten Landako Gunean; afari handi batean elkartu eta gero, Luhartzen erritmora dantzatu ziren.

Atzera begiratu eta protagonistekin egoteko aprobeztatu zuten ANBOTOK

urtemugako ospakizuna. Esaterako, emakumeen taldearen sortzaileetakoak izan ziren Emi Mendez, Ines Etxegibel eta Goretti Etxegibel batu ziren. Madrilen ikasten zebilela harrapatu zuen sorrerak Goretti. “Emakumeen talde bat sortzen zebiltzala jakitean, ezin nuen sinetsi. Madrilen, bai, baina Durangon eta 1989an?”. Bestalde, Iñaki Camarero eta Iñaki Uribe “pase imaginarioak” egiten zituztela oroitu zuten, hasieretan ez zeukatelako baloirik.



20 portugaz, giro aparta Mañariko azokan

❑ **Herririk herri** - MAÑARIA

> **AZOKA.** Maiatzaren 21ean Mañariko XXII. Artisau, Elikadura eta Landare azoka antolatu zuten. 20 postu ipini zituzten plazan, eta giro aparta egon zen. Bertako edo inguruko produktuak zirengaienak: Mañarikoak, Izurtzakoak, Iurretakoak, Otxandiokoak, Abadiñoakoak...



“Nahiago dut futbola maila onean utzi”

❑ **Kirola** - DURANGO

> **FUTBOLA.** Mikel Muniozguren Amorebietako jokalaria denboraldi amaieran hartu zuen erretiroa, lasaitasunez, taldeak mailari eutsita. Gainera, berak ere maila onean zegoela utzi gura zuen.



Solana praktikantea, erretiroa hartuta

❑ **Akutila** - ABADIÑO

> **JUBILAZIOA.** “Gaixoaren lekuan jarrita egin izan dut beti lan, nik jaso gura nukeen tratua emanez”, azaldu zuen Isabel Solanak. 33 urtez Abadiñoako praktikantea izan zen, eta erretiroa hartzea tokatu zitzaion 2017an.



San Faustoko obren amaiera ospatu dute

❑ **Herririk herri** - DURANGO

> **HIRIGINTZA.** San Fausto auzoa eraberritzeko obrek urte eta erdi iraun zuten, eta amaiera heldu zenean, jaialdia egin zuten auzotarrek, udalagaz elkarlanean. 350 lagun inguru batu ziren maiatzaren 27ko bazkarian. Udalaren obrekin, urbanizazio erosoagoa du auzoak, baita zerbitzu hobeak ere, urarena eta argiarena, kasu.

Greba deialdiak Hezkuntza publikoan

❑ **Herririk herri** - DURANGALDEA

> **HEZKUNTZA.** Urtea beroa izan da Hezkuntza publikoaren arloan, irakasleek hainbat greba egun izan baitituzte, ELA, LAB eta Steilas sindikatuek deituta. Irakasleek zioten azken urteetan murrizketak jasan behar izan dituztela gobernuren partetik, eta egoera horri buelta eman gura ziotela. Adibidez, irakasleren bat gaixotzean, ordezkapena lehen egunetik betetzea eskatzen zuten, zenbait kasutan bost egun berandu etortzen zelako.





GAURSA
CAR WASH

Autoak garbitzeko gune premium
Berria

Bakarra Euskadin

Astelehenetik Igandera 9:00etatik 20:00etara



Arriandi Auzoa, 12 lurreta (Bizkaia) Nissan eta Renault Gaurisa instalazioetan



Mañariko umeak herrian bertan jolastu daitezzen

📍 **Herririk herri** - MAÑARIA

> **HEZKUNTZA.** Herri txikietako arazo bat umeen aisialdi eskaintzarena izaten da. Bizilekua herrian eduki arren, sarritan herri handiagoetan garatzen dute bizimodua: eskolara joan, lagunekin jolastu... Mañariko guraso talde bat kezkatuta dago arazo horregaz, eta zerbait egin behar zela ikusi dute, euren umeak herrian bertan dibertitu daitezzen. Gainera, herrikoetorkizunean eragina izan ahal duela uste dute. “Umeek bizimodua Mañaritik kanpora egiten badute, he-

rria bizirik barik geratuko da”, zioen elkarrizketan gurasoetako batek.

Horrela, hainbat ekintza antolatzen hasi dira, euren kabuz. Esate baterako, kanpaldi bat egin dute plazan, kanpin-denda eta guzti. 2016an egin zuten lehenengoz eta, umeek eskatuta, 2017an berriro egin behar izan zuten.

Auzoetara eta mendietara irteerak, udalekuak, txitxi-burduntzia, Olentzero, bizikletak konpontzeko tailerra... Deneriko ekintzak prestatu zituzten iaz.

Mañariko Udalak 8.000 euroko laguntza eman zien finantzatzeko, eta behar zuten gainerako dirua euren ekimenen bidez lortu zuten.

Kioskoa, itsasontzi bihurtuta

2017an, bestalde, udalak plazako jolasgunea eraberritzen amaitu zuen. Kioskora itsasontzi itxura eman, eta txirristak, sareak, tirolina eta bestelako tramankuluak ezarri zituen, umeek dibertitzeko gune bat eduki zezaten.



Ospitaleko umei irribarra ateratzen

📍 **Berbaz** - DURANGALDEA

> **ELKARTASUNA.** “Egoera latza bizi duten umeak dira, eta tarte batean bada ere, irribarre bat ateratzera goaz”, adierazi zuten elkarrizketan Irrikiklown taldeko Maite Muñozek eta Jabi Muruak. Ospitalean gaixorik dauden umeak bisitatu, eta antzezpenak eskaintzen dizkiete pailazo hauek. Ekainean, diru-bilketa kanpaina bat egin zuten, euren ekimenagaz jarraitu ahal izateko.



Aizpurua eta Bereziartua triatloilari txapeldunak

📍 **Kirolak** - DURANGO

> **TRIALTOIA.** Kirolean, batez ere gazteen notiziak agertzen dira hedabideetan. Baina, kale, mendi eta aretoetan badabilta hainbat kirolzale, esperientziaren lekuko direnak. Horixe da Jone Aizpurua eta Serafin Txela Bereziartua triatloilarien kasua. Azken horrek sortu zuen Durangoko Mugarra Triatloi Taldea 2003an, eta hasieratik parte hartzen dabil Aizpurua.

Ekainean albiste izan ziren biak, lehian nabarmendu zirelako. Aizpurua Espainiako txapelketa irabazi zuen 40-44 adin tartekoetan, eta Bereziartua, aldiz, txapel-dunorde geratu zen 50-54 urte artekoetan. Batek ere ez zuen espero horrelako postua eskuratzerik.

Andoni Iruarrizaga, jaien antolatzailer saltseroa

📍 **Akuilua** - DURANGO

> **JAIK.** Durangoko Muruetatorre auzoko jaiak indarra hartzen dabiltza azkenaldian. Aurten, hamargarren edizioa ospatu dute, eta antolaketan buru-belarri ibili da Andoni Iruarrizaga. Jaietako saltseroetako bat da, baina ez hori bakarrik. Gure Esku Dago dinamikan ere badabil lanean, eta Athleticzale amorratua da. Bitxikeria lez, Ibaizabal tabernan, bere izeneko plater bat dute.





Errekaleorren bizitzen, alternatiba bila

Herririk herri - DURANGO

> **OKUPAZIOA.** Hilargi Macho durangarra Gasteizko Errekaleor auzo okupatuko bizilagunetako bat da. Udaberrian lau hazietara hedatu zen proiektu hori, udalak auzoa eraisteko asmoa agertu eta gero. Argia kendu zieten, eta, horren aurrean, energetikoki burujabe izateko apustua egin zuten. Eguzki plakak erosteko diru-bilketa hasi zuten. Urtea amaitu aurretik, dagoeneko martxan dute instalazioa.

150 lagun inguru bizi dira Errekaleorren, sistema kapitalistari alternatiba bat eskaini guran. Batzarren bidez gestionatzen dute auzoa. Gainera, balio sozialak lantzen dituzte, euskararen sustapena eta feminismoa, adibidez.

Boni Macarron martxantera gogoan

Herririk herri - DURANGO

> **MEMORIA.** Durangon oso maitatuak izan ziren Boni Macarron eta bere familiako gozoki-saltzaile edo martxanterak. Horie guztiei eskerrak emateko, udalak oroimen keinu bat izan du, eta albisteaz berba egin zuen Boniren loba Joseba Martinek. Pozik hartu zuten ekimena. “Emakume langile eta umilak ziren”, nabarmendu zuen hunkituta.



Besoitaormaetxea, euskal baserrien aitzindari

Herririk herri - BERRIZ

> **IKERKETA.** Berrizko Besoitaormaetxea baserria zientifikoki datatu den euskal baserrien aitzindaria da. 2014tik indusketan ibili dira bertan, eta ondorio garrantzitsu horretara heldu dira arkeologoak. Ikerketari esker, euskal baserriek eduki duten eboluzioa hobeto ezagutu ahal izan dute, Teresa Campos arkeologoaren esanetan. Emaitza jakin ostean, “sorpresa” hartu zuten baserriko Fuldain Eizaga-Etxebarria familiakoek.



MAÑARIKO UDALA

946 818 998

www.manaria.org



Eneko Atxaren 4. Michelin izarra

📍 **Berbaz** - ZORNOTZA

> **GASTRONOMIA.** Eneko Atxa sukaldari zornotzarrak markak gainditzen jarraitzen du. Aurten *Eneko* izeneko jatetxea zabaldu du Larrabetzun, dagoeneko munduan famatua den Azurmendiren inguruetan. Bada, jatetxe berriagaz ere Michelin izarra lortu du, aurretik jasotakoak batuta bere laugarrena dena.

Ekainean egin zuen jatetxe horren inaugurazioa, eta ANBOTO ere gonbidatu zuen bertara. Planteamendu berri bat egin du, “jatorrira bueltatzeko” as-

moz. Sukaldariak jantokian tradizioz betetako platerak prestatzen dituen bitartean, bisitariak bere jakiak dasta ditzake. “Gure inspirazioa oso argia da. Gure tradizioak, jasotako errezetak, gure inguruak itsaso eta mendietatik hurbil, ekoizleen kultura eta lau urtaroretako produktuen aberastasuna”.

Menu hori sortzeko, bertako jakiak dira protagonista. “Bertoko ekoizleekin hornitzaile sare zabal bat sortu dugu. Lantaldeko kide dira”, Atxa sukaldariaren esanetan.



Garazi Iriondo, istripuak saihesteko lanean

📍 **Berbaz** - DURANGO

> **HEZKUNTZA.** Duela 13 urte bere neba hil zuen auto gidari batek, eta orain, bide heziketa lantzen dabil Garazi Iriondo Stop Accidentes elkarteko kidea. Lan horretan dihardu ikastetxeetako neska-mutikoe-kin, Durangoko Udalaren bide heziketa programaren bitartez.

Uztai taldea, onena gimnasia erritmikoan

📍 **Kirola** - DURANGO



> **GIMNASIA.** Uztai taldeak Euskadiko txapelketa irabazi du aurten senior mailan. Sara Sendinok, Ane Tranchok, Meritxell Mardarasek, Ainara Ruedak eta Julene Grandek osatu zuten boskotea.

‘Motxiladun umeen’ testigantza zabaltzen

📍 **Herririk herri** - DURANGALDEA

> **POLITIKA.** *Motxiladun umeak* izendatu dituzte ama edo aita ikusi ahal izateko kartzelara bidaiatu behar duten 113 umeak, euskal presoen seme-alabak izatearren dispertsioa ezagutu behar izan dutenak. Alaitz Areitio preso iurretarrak eta Oier Andueza preso durangarraren emazte Araitx Zubimendik eman zuten euren testigantza. Anduezaren umeek Murtziaraino (Espainia) joan behar izaten dute, eta Areitioenak Fresneseraino (Frantzia).



Berton Bertokoa dinamikaren jaia

📍 **Herririk herri** - ABADIÑO


> **HEZKUNTZA.** Berton Bertokoa dinamikako gurasoek jai handi bat egin zuten Abadiñon, euren aldarria hedatzeko. Eskola publikoetako jantokien gestioa arautzen duen legea aldatu gura dute. Durango – Landako eta Zabalarra-, Iurreta, Abadiño, Atxondo, Berriz, Elorrio eta Zaldirbarko guraso elkarteak daude batuta.



Umerri proiektukoak, Garaitik despedidan

📍 **Herririk herri** - GARAI

> **HEZKUNTZA.** “Garain oso gustura egon gara, eta haren falta handia sumatuko dugu”, adierazi zuten Umerri hezkuntza proiektuko kideek ekainean. Irailean Berrizen hasi zuten ikasturtea, eta etapa berri bat ere bai.



Angoitiaren argazkiak, Tangerren inspiratuak

Kultura - DURANGO

> **Argazkilaritza.** 2013. eta 2016. urteen artean Marokoko Tanger hirira egindako bost bidaiatan ateratako 90 argazki bilduzen dituen liburuak kaleratu du aurten Txelu Angoitia argazkilaria durangarrak. *Tanger Dream* izenburua du liburuak, eta egileak hiri hartako bizipenez idatziriko testuak ere jasotzen ditu. Noctis Photo argitaletxeagaz argitaratu du.

Jesus Mari Arruabarrena lagunagaz, ikastaro bat jasotzera joan zen Txelu Angoitia Tangerrera lehenengoz. “Maitemindu egin nintzen hiriaz, harrapatu egin ninduen. Hango bizimoduak gure umezaroagaz antz handiagoa duelako beharbada”, dio argazkilariak.

Barnetegia 25 urtez euskara bultzatzen

Herririk herri - ZORNOTZA

> **EUSKARA.** Ekainean Zornotzako Barnetegiaren 25. urteurrena ospatu zuten. Xabier Euzkitzek gidatu zuen ekitaldia. Iñigo Urkullu lehendakariak ere bisitatu zuen barnetegia. “Apaltasunez, baina harrotasunez esan dezakezue ibilbide askoren laguntzaile izan zaretela. Bide luzea egin duzue euskararen eta euskal gizartearen mesedetan”, esan zuen Urkulluk.



Petitarrak, trikitilari eta auzoko jaien antolatzaile

Akuilua - IURRETA

> **AUZOAK.** Amatza auzoko jaien antolatzaileetakoak dira Ainara eta Hegoi Petite. Azken urteetan trikitixaren mapan sartu dute Amatza, musika estilo horretako jaialdia egiten baitute. Aurten, hirugarren aldian izan da. Bestalde, Petitertarrek bikote moduan lehenengoz parte hartu dute txapelketa batean, Markinako jaialdian, hain zuzen ere. Hala ere, trikitixa lagun giroan ondo pasatzeko tresna bat dela diote, ez lehiatzekoa.



Euskara ikasi nahi baduzu, bizi euskaraz! Zornotzako barnetegian euskaraz hitz egiten eta bizitzeko ikasiko duzu **URTE OSOAN**.

HABEK homologatutako zentro honetan euskara ikasteko modurik egiaztatua eta eraginkorrena dugu. Ikastaroak iraun bitartean, ikasleak inguru euskaldunean euskaraz bizi dira.






2018 NEGUKO IKASTAROAK

IKASTAROAK	EGU-NAK	PREZIOAK Pentsio osoan	PREZIOAK Pentsio erdian
Urtarrilaren 8tik otsailaren 2ra	20	582,00 €	497,00 €
Otsailaren 5etik martxoaren 2ra	20	582,00 €	497,00 €
Martxoaren 5etik 28ra	18	524,00 €	447,00 €
Apirilaren 9tik 27ra	15	437,00 €	373,00 €
Maiatzaren 2tik 31ra	22	641,00 €	547,00 €
Ekainaren 4tik 29ra	20	582,00 €	497,00 €

Ikastaro trinkoak ASTE SANTUAN.

AHAZTU EZAZU -TZEN METODOA

Euskararekin ez dago lasterbiderik. Biderik laburrena bizi izatea da.






Zornotzako Barnetegia
Larrae s. 2/a, 2.º g.
Aranburu-Elizate

zornotzakobarnetegia.eus
Tel.: 946 308 304



82 urteren ostean, emakumeen aureskua berreskuratuko dute

📍 **Herririk herri** - OTXANDIO

> **KULTURA.** Otxandioko emakumeek gerra aurretik dantzatzeko zuten aureskua berreskuratuko zuten, eta uztailaren 22an, jaietako laugarren egunean, herriki-deen aurrean aurkeztu zuten, Andikona plazan. 1936an Otxandio bonbardatu zutenetik eten zen soka-dantza honen tradizioa. Ikerlariak diotenez, emakumeek

lan egiten zuten jaietan, etxean zein gonbidatuen ardura hartuta. Uztailaren 22a, ordea, beraien eguna izaten zen. Emakumeak garbitokietan egoten ziren, eta errementariak, lanetik irteterakoan, haien bila joaten ziren. Plazara joan, eta errementariei soka-dantza hau dantzatzeko emakumeek.

Duela 40 urte Santurtziko Flores anaiek Otxandioko folklorea ikertu zutenetik abiatu zen emakumeen aureskua berreskuratzea. Sabina Oianguren zen sasoi hartako dantzarien azken belaunalditik gelditzen zen emakume bakarra. Dantzazale amorratu hark, 86 urte zituela ere, aureskua mugimenduak garbi zituen buruan. Oianguren ikerlari santurtziarrei eta dantza taldeko beste kide batzuei pausoz pauso irakatsi zien bere oroimenean baino ez zegoen altxorra. Horrela, Otxandioko dantzarien lanari esker, katea ez da eten.



Amaia Aromari omenaldi hunkigarria, Tuteran

📍 **Kultura** - DURANGO

> **TXISTUA.** Uztailaren 25ean, Amaia Aromari (Durango, 1936) txistularia omendu zuten Tuteran. Ekimenaren antolatzailea Tuterako Txistulariak taldea izan zen, eta laguntzaileak Mugarik Gabeko Txistulariak eta Tuterako Peña Beterri. Garbi Alaiak dantza talderako txistulariak behar zirela eta, 18 urte hasi zen txistua jotzen; artean, Aromari zen emakume txistulari bakarra.



Oihana Azkorbebeitiaren denboraldirik onena

📍 **Kirola** - ABADIÑO

> **KORRIKA.** Oihana Azkorbebeitia bere kirol ibilbideko unerik gorenean dago. Euskal Herriko selekzioagaz nazioarteko lasterketak jokatu ditu aurrean, eta emaitza bikainak lortu ditu Italian, Andorran, Katalunian eta Eskozian, besteak beste. Munduko Kopako bosgarren postua lortu handia izan da abadiñarrantzat. Era berean, Buff Epic Trail proba, T3T maratokia, Euskal Herriko Txapelketa, Anbotoko Kilometro Bertikala, Apuko Igoera eta beste hainbat proba irabazi ditu. ANBOTOk uztailean egin zion elkarriketan, "semeak helmugan zain izango ditudanaren pentsamendu eta ilusioagaz ibiltzen naiz korrika" esan zuen.

Lekuko memoria 'Paperak' dokumentalean

📍 **Herririk herri** - OTXANDIO

> **MEMORIA.** 1936an hegazkinetatik botatutako bonbak, airetik jaustean paperak zirela uste zuten otxandiarrek, bonbardaketarik ezagutu bakoak baitziren. Horrela, *Paperak* izena ipini diote Ana Alberdi, Irene Arin eta Paul Arzanegi Mondragon Unibertsitateko ikasleek ANBOTOk dokumentalari. Sasoi hartako testigantzekin mamitutako ikus-entzunezkoa jaietan estreinatu zuten, Otxandioko Andikona plazan.





Anfiteatroa estaltzeko lanak esleitu dituzte

📍 **Herririk herri** - MALLABIA

> **AZPIEGITURAK.** Idenort enpresari esleitu zizkioten uztailean anfiteatroa estaltzeko lanak. Barruan umeen jolasak eta helduen gimnasioa jarriko dituzte.

450 lagunentzako paella erraldoia egin dute

📍 **Herririk herri** - DURANGO

> **ANGELMAN.** Angelman sindromea ikeritzen laguntzeko jaialdia antolatu zuen Mendibeltz futbito taldeak Tabirako igerrilekuetan. 450 lagunentzako paella prestatu zuten.



Zornotza saskibaloit taldea EBA ligako lider

📍 **Herririk herri** - ZORNOTZA

> **SASKIBALOIA.** Espainiako Saskibaloit Federazioak denboraldi honetan Zilarrezko Ligan jokatu duten 16 taldeen berri eman zuen uztailean, eta Zornotza ST taldea ez zegoen zerrendan. Denboraz kanpo paperak aurkeztea izan ei zen arrazoia. Kirol Kontseilu Gorenak atzera botatu zuen Zornotza STren helegitea. Audientzia Nazionalak ere ezezkoa eman zion klubaren eskaerari. Bizi zuten egoera kudeatzeko, kautelazko neurria eskatzen zuten. Ondoren, Espainiako Saskibaloit federazioak EBA Ligako A multzoko (Zilarrezko Liga baino maila bat beherago) talde kopurua handitu zuen, beste birentzat lekua eginda. Zornotza STk bertan jokatzeko eskaera egin zuen. Dokumentazioa aurkeztu eta eskaera onartu zuten. Orain maila horretan bikain dabilta, lider, eta aurkariak zanpatuz.



Arginzoniz pediatriari omenaldi sentitua

📍 **Herririk herri** - IURRETA

> **OSASUNA.** Maiztegi herri eskolako Guraso Elkarteak bultzatuta, omenaldi beroa egin zioten ia 30 urtean Iurretan pediatria izan zuten Txema Arginzonizi. Sorpresaz eta hunkituta hartu zuen aitor-tza Arginzonizek.

Eustrak-Euskadi taldean dabil Ziortza Isasi

📍 **Kirola** - ELORRIO

> **KOOPERAZIOA.** Ziortza Isasi txirrindulariak brontzezko domina lortu zuen Europako txapelketako kanporaketa proban Portugalen. Isasik Eustrak-Euskadi UCI taldearekin sinatu du aurten.



Elorrio urtes osoko Turismoa
 Herriko Plaza, 48230 Elorrio (Bizkaia) · Tel.: 94 658 712
www.elorrioturismo.eus

Elorriko udala



Buskantza taldea bigarren B mailan

Kirola - ELORRIO

> **ARETO-FUTBOLA.** Elorrioko Buskantzak areto-futboleko Bigarren B Mailan jokatzeko dihardu. Lehenengo esperientzia da maila horretan. Erronka ilusionanteari aurre egiteko, ardura-dunak lanean buru-belarri jarri ziren, finantziario iturri egonkorra lortzeko. Hainbat babeslegaz akordioa lotu zuten eta, lehenengoz, bazkideen figura sortu zuten. Bigarren B Mailan jokatzeko gastuak handitu egiten ditu, arlo bitan batez ere. Batetik, joan-etorriak luzea-

goak dira eta askotan irten beharko dute EAetik. Bestetik, epailei ordaindu beharrekoa ere bikoiztu egiten da. Beraz, 30.000 euro inguruko aurrekontua beharko zutela kalkulatu dute, iazkoa baino heren bat handiagoa.

Kirol arloko lorpen honen errekonozimendu legez, Elorrioko Ferixa Nausikoetako txupinazoa jaurti zuten Buskantzakoei. Taldeak izan dituen nobedadeak ezagutarazteko aukera ezin hobea izan zen.

Ondo pasatzeko gogoia duten espartarrak

Kirola - DURANGO



> **ESPARTARRAK.** Gero eta gehiago dira oztopo probetan parte hartzea animatzen direnak. Telebista kateei ere ez zaie fenomenoak oharkabea igaro, eta Ninja Warrior eta halako programekin zaleen arreta eurenganaten saiatzen dira. Durangon ere badago lasterketa horietan parte hartzen duen talde bat, baina, lehia-ri barik, elkarrekin dibertitzeari ematen diote lehentasuna. "Horrelako proba batean parte hartzea dibertigarria izan zitekeela pentsatu, eta animatu egin ginen orain hiru bat urte", gogoratu du Javier Vega taldekideak.



Ekitaldi jendetsu batekin inauguratu dute meskita

Herririk herri - IURRETA

> **ERLIJIOA.** Meriem Aboubi El Mansouri Iurretako Alhoda meskitako kidea da. Arabe bezain euskaldun sentitzen da, eta euskara solte darabil. 21 urteko neska gaztea izan zen meskitaren inaugurazioan jendeari harrera egin zionetako bat; izan ere, herriko elkarrekin parte hartzeko deia egin zuten. ANBOTOK egindako elkarriketan Aboubik azaldu zuenez, "leihu handiak ipini ditugu, kanpotik barruan zer egiten den ikusteko. Hedabideetatik ezartzen dizkiguten mitoak ezabatzeke, kontuan hartu gaitzaten. Meskitara doana erradikalizatu egiten dela eta arazoak sortzen dituela diote komunikabideek. Ez da horrela".

Izaro musikaria herriko jaietako txupinera

Kultura - MALLABIA

> **JAIK.** Om diskoaren birako azken kontzertua eskaini zuen Izaro Andresek Mallabian. Aurreko egunean, jaietako txupinera emango zuten txupinazoa jaurti zuen mallabitarrak. "Ametsen atzetik borrokan gabiltzanoei herriko txupinazoa botatzeko aukera bat ematea oso polita da. Iaz Aitor Elordi pilotariak jaurti zuten, eta aurten niri tokatu zait", azaldu zuen Izarok.



Vanesa Fernandez, Zinebiko zuzendari

Berbaz - IURRETA

> **ZINEA.** Bilboko Zinebi zinema jaialdiko zuzendari berria da. Pozik hartu zuen kargua uztailean. "Ilusio handiagaz nago, erronka handia baita Bilboko bezalako nazioarteko zinema jaialdi bat zuzentzea. Zinebi A kategoriako jaialdia da, eta erantzukizun handia dakar karguak, baina lan egiteko oso gogotsu hartu dut izendapena", adierazi zuen Vanesa Fernandez Guerra iurretarrak.



Durangaldea bizi eta ezagutu!

*Toki Garapena, Hondakin bilketa, Gizarte Zerbitzuak,
Euskara, Kirolak eta Kontsumo bulegoa*

ABADIÑO · ATXONDO · DURANGO · ELORRIO
IURRETA · IZURTZA · MAÑARIA · ZALDIBAR

www.mdurango.org





Langile bat hil da Fumbarin

Herrikerri herri - DURANGO

> **LAN ISTRIPUA.** 49 urteko behargina lan istripuan hil zen abuztuaren 18an, 07:00etan, Durangoko Fumbarri enpresan. Heriotza horren aurrean, Enpresa Komiteak azaldu zuenez, “argi adierazi gura dugu langileok ez goazela lanera hiltzera, lan duina behar dugula, duintasunez bizi ahal izateko”. Era berean, administrazioari gertatutakoa “lehenbailehen” argitu zezala eskatu zioten. Abuztuaren 21ean, 24 orduko lanuztera

deitu zuten enpresan eta, horregaz batera, 12:00etan, hainbat langilek kontzentrazioa egin zuten enpresaren aurrean istripua gaitzesteko.

LABek dioenez, sindikatuak Fumbarin urteak daramatza laneko osasun arazoak eta segurtasun eta prebentzio neurri falta salatzen. CCOOek berriz, langilearen heriotzaren ikerketan Fumbarrik “gardentasun falta” eduki zuela salatu zuen.



Aurtenetxe Eskoziako Dundee taldean

Kirola - ZORNOTZA

> **FUTBOLA.** Jon Aurtenetxe zornotzarrak Eskoziarako bidea hartu zuen abuztuaren bere ibilbide profesionalen beste urrats bat emanez. Dundee Football Clubean jokatzeko du. Eskoziako lehenengo mailan diharduen taldea da. Aurrendenboraldia Amorebieta futbol taldean egin zuen.



Bartzelonako atentatuak gaitzesteko protestak

Herrikerri herri - DURANGALDEA

> **ATENTATUAK.** Bartzelonan eta Cambril-en gertatutako atentatuak gaitzesteko, elkarretaratzeak egin zituzten Zornotzan eta Durangon. Zornotzako Udalak azaldu zuenez, “korporazioak dolumina eta elkartasuna helarazi gura izan dizkie biktimen senide eta hurbilekoei”.



Naut Aran lasterketa irabazi du Zaldunbidek

Kirola - IURRETA

> **KORRIKA.** Abuztuaren 5etik 6ra Aran bailaran jokaturako Naut Aran Ultra Traila irabazi zuen Erlantz Zaldunbidek. Urrian, berriz, Arkaitz Iturriagaetxebarrira abadiñarra eta Erlantz Zaldunbide iurretarra 2. eta 3. sartu ziren Basque Ultra Traileko Bilboko helmugan.



MALLABIKO UDALA
Tel.: 943 171 461
www.mallabia.eus



Trenbideko lurak, gune berde eta espazio libre

Herririk herri - DURANGO



> **AZPIEGITURAK.** Trenbideko lurak gune berde eta espazio libre bihurtuko direla iragarri zuen Durangoko gobernu taldeak, Eusko Trenbide Sareagaz sinatutako akordioari esker. Gobernu Taldeak prentsa oharrean azaldu zuenez, guztira, 7.500 metro karratu baino gehiago urbanizatu dituzte. Tailer zaharrek eta tren-tokiek hartzen zuten eremua urbanizatu eta udalerriko erdigunean barneratuko dela azpimarratu zuten. Bestalde, ETSk iragarri bezala, gabon aurretik botako dute tren geltoki zaharra, EH Bilduk eraikina mantentzearen alde aurkeztutako mozioak ez baitzuen aurrera egin. Pleno horretan, eraikinaren balio historikoaz eztabaidatu zuten udal gobernuak eta oposizioak. Era berean, herritar talde baten sinadura bilketa hasi zuen *change.org* atarian, prozesua eten eta herritarrei hitza ematea eskatzeko.

Hontza museoa, Mañariko txupinazoan

Kultura - MAÑARIA

> **JAIK.** Hontza museoko Enrike eta Leire Huertak jaurti zuten Mañariko jaietako txupinazoa. “Erantzukizuna da; urduri gaude apur bat, baina pozik”, azaldu zuten egun handiaren aurretik.



Astepeko etxeak eraitsi dituzte

Herririk herri - ZORNOTZA

> **OBRAK.** Termitek kaltetutako Astepeko 18 eta 25 zenbakien arteko etxebizitzak eraisketa abiarazi zuen Zornotzako Udalak, abuztuan.

Sutea piztu da Lapur Errota jatetxean

Herririk herri - DURANGO

> **SUTEA.** Sutea piztu zen Durangoko Lapur Errota jatetxean. Iurreta eta Durango arteko mugan dagoen eraikinaren teilatua itzali zuten sua suhiltzaileek, eta, horretarako, udaltzainek Maspe kalea itxi zuten. Ez zen inor zauritu.



Uri Barrutieta, Irlandako munduko kopan

Kirola - DURANGO

> **ERRUGBIA.** Irlandako munduko kopan parte hartu zuen abuztuan Uri Barrutieta durangarrak. Durangarrak aukera hau poztasunez hartu zuen. “Urte osoan lanean aritu eta gero hautatua izatea oso pozgarria da”, azaldu zuen Barrutietak.





Sahararen alde hondar alea jarri dute eskualdean

▣ **Herririk herri** - DURANGALDEA

> **ELKARTASUNA.** Ume sahararrak etxean hartu dituzten bost familia berri egon dira aurtengo udan Durangaldean. Guztira, 38 izan ziren uda pasatzera Durangaldera etorri ziren umeak. Familietan eta udalekuetan egon ziren.

Rio De Orenen eskutik esaterako, eskualdeko familietara 8 ume etorri ziren. Rio de Oro proiektuaren arduraren hartu duen lehen urtean —Herria elkarteari erreleboa hartuta— egindako kanpai-

nari esker gehitu ziren familiarik gehienak. Azken urteetan beheranzko joera egon zen, eta aurten buelta eman diote. “Aurten joerak gorantz egin du, eta espero dugu gorantz jarraitzea”, adierazi zuen Aitor Lejarazu elkarteko kideak.

Uztail eta abuztuan eskualdean egon ziren gazteak Marokoko okupaziotik Aljeriako lurretara ihes egindako errefuxiatuen kanpamentuetako gazteak ziren. Hango egoera zailetik eta berotik

arnasa apur bat hartzeko asmoz etorri ziren, baita osasun azterketak egiteko ere. Eta hori posible egiteko, harrera familia ugari agertu ziren prest.

Harrera familietara etorritako 8 umez gain, aniztasun funtzionala duten 9 ume jaso zituzten Izurtzako kanpamentuan Rio de Oroko kideek. Bestalde, Elorrioko Lajwad elkartearen bidez 5 ume etorri ziren Durangaldera, eta 16 Hamadako Izarrak taldearen bidez.



Durangaldeko lehen zerbeza Garain egin dute

▣ **Herririk herri** - GARAI

> **ZERBEZA.** Garai Durangaldeko lehen zerbeza ekoizten hasi dira Ibon Berriozabalgaitia garaitarra, Ekaitz Alberdi durangarra eta Eduardo Muñoz abadiñarra. “Durangaldean bertako zerbeza edan dadila, hori da gure intentzioa”, aldarrikatu zuten ekoizleek irailean egindako erreportajearen. Orduz geroztik, zenbait taberna eta dendatan aurkitu daiteke Garai garagardoa: Durangoko Saltsan Kateringean, Martxel Harategian, Alpinon, Herrian, Gorrotxanean eta Bidebaltzen; Mañariko U2n; Izurtzako Herriko tabernan eta Garaiko Herriko tabernan, eta Garai jatetxean, besteak beste.

Ilusioa, irria eta gauzak aldatzeko gogo

▣ **Herririk herri** - DURANGALDEA

> **ELKARTASUNA.** Aktibisten alde pertsonalean ekintza sozialak zelan eragiten duen jakiteko, erreportaje sorta argitaratu zuen irailean ANBOTOk. Hori horrela, Anes Baños Sorginola gaztetxeko kideak, Ander Biritxinaga Rio de Orokoak eta Maialen Magunagoitia Arrazolako jai antolatzaileak aktibismoaren alde pertsonalaz berba egin zuten. Durangaldeko hiru gazteen hitzetan, herrigintzak gauza positibo asko ekarri die, eta urte luzez horretan aritzea espero dute. Gainera, proiektu hauei esker nobere burua eta taldekoena zaintzen ikasi dutela adierazi dute.



Sariak parekatu dituzte ziklo-kros probetan

▣ **Kirola** - DURANGALDEA

> **BERDINTASUNA.** Euskal Herriko ziklo-kros denboraldia hastear zenean nobedade garrantzitsua jakitera eman zuten: emakumeen sariak gizonenera parekatu zituzten. Gizonetan adina sari daude emakumeetan eta, gainera, kantitate berdina jasoko dute. Elorrion ziklo-krosko askotariko eragileen batzarra egin zuten erabakia hartzeko. Bileran horretan Naia Alzola durangarra izan zen ziklo-krosko emakumeen kolektiboko ordezkaria. Urte bi lehenago lasterketetan parekidetasuna eskatzeko protestak egiten hasi ziren eta hedabideetan oihartzuna izan zuen.



Luteroren tesien 500. urteurrena, Durangon

📍 **Herririk herri** - DURANGALDEA

> **ERLIJIOA.** Martin Luterok erlijio kristauaren oinarriak astindu zituen 1517an, Erromako Eliza Katolikoari zuzendutako 95 tesiak Alemaniko eliza batean utzi zituenean. Oihartzun itzela izan zuen eta eztabaida teologiko sakon baterako atea ireki zuen. Gero, erreforma protestantean gorpuztuko zen. Aurten 500 urte egin dira gertaera horretatik, eta protestantismoaren ekarpena eta eragina ezagutzera emateko ekitaldiak egin dituzte Durangon.



Jaizkibelek emakume bertsolariak saritu ditu

📍 **Herririk herri** - IURRETA

> **BERTSOLARITZA.** Hondarribiko alarde parekidea sustatzen duen Jaizkibel konpainiak emakume bertsolariak omendu zituen Berdintasun Sariaren 3. edizioan. Ekitaldian Kristina Mardaras iurretarra eta Durangon bizi den Erika Lagoma lesakarra izan ziren. “Alardearen inguruan sekulako lana egiten dabiltzanek sari bat ematea garrantzitsua da niretzat”, aitortu zuen ekitaldian Mardarasek.



Parkourra praktikatzen duten gazte elorriarrak

📍 **Kirola** - ELORRIO

> **PARKOURRA.** Begiratzeko moduan dago kontua. Plazako eserlekua arrisku-salto bat egiteko osagaia bihurtu daiteke Elorrioko lau gazterentzat. Marcos Melgar, Georgy Ascargorta, Josu Cristobal eta Dani Crespo gazteek beren afizioaren ikuspuntutik begiratzen diete kaleari eta munduari. Durangaldean parkourrak jarraitzaile askorik ez duela aitortu dute.

**EUSKARAZ ETA
BERDINTASUNEAN
BIZI EGUNEZ
EGUN!**

**berrizko
UDALA**

**BERRIZKO
UDALA**

Tel.: 946 824 036
www.berriz.eus



L.E.

Eneko Sagardoy, eten barik hazten

Kultura - DURANGO

> **ZINEMA.** Eneko Sagardoy protagonistetako bat duen 'Handia' filma Donostiako Zinemaldian estreinatu zuten, eta, horren harira, ANBOTO Durangoko aktoreagaz izan zen. 'Handia' pelikulari baietz esateko, Sagardoyk ezetza eman behar izan zion beste proiektu bati. "Une zaila izan zen, beste erabaki batzuk hartzen lagundu didana gero. Ezetz esaten eta nigan asko pentsatzen ikasi nuen", adierazi zuen Durangoko aktoreak.

'Handia' filmari Irizar Saria eta Epaimahaiaren Sari Berezia eman zizkioten Donostiako Zinemaldian.

Bestalde, otsailean banatuko diren Goya sarietan aktore berri onenaren saria eskuratzeko hautagaien artean izendatu dute durangarra, 'Handia' filmeko paperagatik. Pelikula horrek 13 izendapen edukiko ditu guztira. "Talde osoa saritu izanaren sentsazioa daukat. Talde osoak jasotako errekonozimendua da", azaldu du Sagardoyk.



"Transplantea eta kirola bateragarriak dira"

Kirola - DURANGO

> **TXIRRINDULARITZA.** 2014an giltzurrun transplantea egin zioten Javier Agirre-ri. "Gogorrena ez zen izan transplante bat beharko nuela pentsatzea, kirola utzi beharko nuela entzutea baizik", adierazi zuen Agirrek. Hala ere, transplantea eta kirola bateragarriak direla aitortu zuen.



Hiru sari irabazi ditu L'Atelierrek Parisen

Kultura - DURANGO

> **DANTZA.** Parisen jokaturako *Vive tu Sueño* nazioarteko dantza lehiaketan hiru sari jaso zituen L'Atelier Durangoko dantza eskolak. Sariak taldekako lehiaketan eta *breakdance* arloan jaso zituzten.



Lertxundi eta Ormaetxea, Mongolian

Kirola - DURANGALDEA

> **TXIRRINDULARITZA.** Koikili Lertxundik eta Beñat Ormaetxeak Mongoliako Bike Challenge proban parte hartu zuten Helmutag-Eusport proiektu solidarioaren barruan. Hauen hitzetan, erronka nekagarria baina asebetegarria izan zen.



Jubilatuen taberna eraberritua, Elorrión

Herririk herri - ELORRIO

> **INAUGURAZIOA.** Ekainean atea itxi ondoren, Ferixa Nausikoen atarian berriz ireki zituen atea jubilatuen tabernak. Eraberritutako taberna artisten margolan-jantzi eta terraza ere jarri zuten. Maite Arginzoniz kudeatzailearen hitzetan, "bizitasuna" ematea du helburu.



Kurutziagakoak haserre txosnen lekuagatik

Herririk herri - DURANGO

> **JAIK.** San Fausto jaien bueltan Kurutziagako bizilagunek "erabateko desadostasuna" erakutsi zuten Txosnagunea auzoan jartzeko erabakiaren aurrean.

Zenbait auzokide eta merkatarik prentsaren bidez jakin zutela salatu zuten, eta "irainduta" sentitu ziren. Bestalde, kaleko ebakuazio eta larrialdi planengatik kezkatuta zeudela ere adierazi zuten. Horrez gain, etxeak babesteko eta kaleko pibote metalikoak kentzeko eskaria egin zioten udalari.

'22', San Salvadorrek utzitako bizi irakaspena

Kultura - DURANGO



> **LITERATURA.** 22 urtegar koloneko minbizia eta gibekeko metastasia diagnostikatu zioten Paule San Salvador del Valle durangarrari. Hiru urte baino gehiago iraun zuen minbiziaren kontra borrokan, eta urte horietan idatzitako testuak biltzen ditu 22 liburuak. Familiaren eta lagunaren ekimenez argitaratu zen.

"Txapligu barik ez dut jairik irudikatzen"

Akutilua - IURRETA

> **JAIK.** Andoitz Elorriaga iurretarrak txapliguak botatzeko ardura izan zuen San Migel jaietan. Elorriagak aitortu zue-nez, domeka goizean bota beharreko txapliguak egin zitzaizkion gogorren.



Damaris Panen bilduma Zornotzan ikusgai

Kultura - ZORNOTZA

> **PINTURA.** Zornotzako Bosteko erakusketan Damaris Panen lanak egon ziren ikusgai. Panen hitzetan, "koadro bakoitza abesti instrumental bat bezalakoa da".

Itsaso Praderak paleta goma uztea erabaki du

Kirola - MALLABIA

> **PALETA GOMA.** Arrakastaz betetako ibilbide oparo baten ostean, Itsaso Praderak paleta goma uztea erabaki zuen. Lau aldiz Munduko Txapelketa irabaztea lortu du, baina hasierako ilusioa ez duenez, erretiratzea erabaki duela esan zuen.



ZALDIBAR ELIZATEKO UDALA
 Tel.: 946 827 016
 www.zaldibar.eus

Zaldibar
 Elizateko Udala



Kataluniako prozesuari babesa erakutsi diote Durangaldean

Herririk herri - DURANGALDEA

> **ERREFERENDUMA.** Urriaren 1ak, Kataluniako erreferendum egunak, historiarako irudiak utzi zizkigun, polizia-aren kolpeen aurrean botoa eman gura zutenen erresistentzia baketsuarenak. Gainera, Espainiako gobernuak ez zuen erreferenduma guztiz oztopatzea lortu; herritarren defentsari esker, erroldako

%42k parte hartu zuten, 2,2 milioi herritarrek, %90 independentziaren alde. Horri, polizia-rik baliorik barik utzitako 770.00 boto gehitu behar zaizkio, Generalitatearen arabera. Urriaren 16an, berriz, ANC eta Omniumeko eragileak diren Jordi Cuixart eta Jordi Sanchez kartzelara bidali zituen Audientzia Na-

zionaleko epaileak. Urriaren 27an, Generalitateak independentzia aldarrikatu zuen, eta, horren ostean, Espainiako gobernuak 155 artikulua ezarri zuen.

Durangaldeko hainbat herritarrek hasiera-hasieratik babesa erakutsi zieten prozesuari eta katalanei. Esaterako, eskualdeko zeinbat herritar begirale eta laguntzaile lanak egitera joan ziren Kataluniara. Bestalde, Durangaldean hainbat elkarretaratze eta kazerolada egin zituzten Kataluniako prozesuaren alde, eta udalek atxikimenduak sinatu zituzten.

“Dantza garaikideak nortasuna du oinarri”

Kultura - DURANGO

> **DANTZA.** Elene Carreto ‘Funtzak’ obra-ko dantzarietako bat da. Durangarra umetan balletean hasi zen arren, dantza garaikidera jo zuen urteekin. “Dantza garaikidea beste dantza mota batzuk baino libreagoa da eta nortasuna du oinarri. Horrek izugarri asetzen nau”, adierazi zuen Carretok. Gainera, dantza garaikideko teknika barruan duzuna ateratzeko baliatzen dela jakitera eman zuen.



‘Errementari’ filmeko partaideen ilusioa

Kultura - DURANGALDEA

> **ZINEMA.** Paul Urkijo arabarrak zuzenduriko ‘Errementari’ filmean Durangaldeko hainbat aktorek parte hartu zuten. Kandido Uranga, Ramón Agirre, Josean Bengoetxea, Jose Ramón Argoitia eta Eneko Sagardoy aktore ezagunekin batera, Durangaldeko lau gaztetxo agertzen dira: Nahia Garcia, Uma Bracaglia, Haizea Garcia eta Eloi Ruiz de Erentxun. Durangaldeko lau gaztetxoek filmaren aitzakian lagunak egin direla adierazi zuten, eta filmaren bigarren parte bat egongo balitz, berriz ere parte hartuko zutela. Bestalde, grabaketetatik makillaje ordu amaigabeak, pasatu zuten hotza, jantziak... gogoratzen dituztela aitortu zuten.



‘Herejía’ Bogoroditsie abesbatzaren eskutik

Kultura - DURANGO

> **MUSIKA.** Durangoko Bogoroditsie abesbatzak *Herejía* ikuskizuna aurkeztu zuen Kuruzesantu Museoan. Abesbatzako kideak azken urte honetan prestatzen ibili diren ikuskizuna da *Herejía*, eta, kantuak ez ezik, zuzeneko musika, antzerkia eta dantza uztartzen ditu. *Herejía* obraren oinarria Inkisizioak Durangon eragin zuen jazarpena dela jakitera eman zuten abesbatzako kideek.





L.E.

“Neure buruagaz gustura sentitzeko lehiatzen naiz”

Kirola - ABADIÑO

> **KORRIKA.** Mendi lasterketak afizio berantiarra bezain emankorrak dira Silvia Triguerosentzat. 41 urtegez emaitza bikainak izan ditu aurten ere. Tor de Geants

Europako probarik gogorrenetakoan lortutako bigarren postua da horren adibide. Hala ere, gustuko duelako lehiatzen dela aitortu zion ANBOTOri, ez emaitzengatik. “Gustatzen zaidalako nabil korrika, ez emaitzen bila nabilelako. Horrez gain, neure buruagaz gustura geratzeko lehiatzen naiz”, adierazi zuen Triguerosek.

Mexikotik Garaira ekarritako errautsak

Herririk herri - GARAI



> **ARTEA.** Gerran erbestera ihes egin behar izan zuten Garaiko Zubiaurre familiak. Pilar Zubiaurre eta Ricardo Gutierrez intelektualen bilobak beraien gurasoen —Leopoldo Gutierrez eta Mercedes Garcia-Urtiagaren— errautsak Mexikotik Garaira ekarri zituzten.

Hauen oinordekoak diren Pilar, Beñoña eta Ricardo Gutierrezek aitortu zuten, “Garaigatik zuen maitasuna barnerratu zigun amama Pilarrek”. Bestalde, Garaira umetatik etortzen zirela adierazi zuten Zubiaurre eta Gutierrezen senitar-tekoek. “Garai gure arbasoen habia da, gure nortasuna. Beste herrialde batzuetan hazi arren, Garai gure istorio pertsonalen parte izan da beti. Eta gure etorkizunaren parte izatea ere gura dugu”, esan zuen Ricardo Gutierrezek.



Sorolla Domina eman diote AEBetan Zugazari

Kultura - DURANGO

> **SARIA.** Hispanic Society of America erakundeak Sorolla Domina eman zion Miguel Zugazari. Durangarrak “arte eta kultura hispanikoari egindako ekarpen aparta” nabarmendu gura izan du Americako erakundeak.

Medemen filma grabatu dute Durangaldean

Herririk herri - DURANGALDEA

> **ZINEMA.** Julio Medem zuzendaria *El árbol de la sangre* pelikula grabatzen ibili zen urrian Abadiñon. Durangaldeko hainbat lagun figurante lanetan ibili ziren. Larraitz Zabala iurretarra eta Luhartz taldeko Rafa Iriondo izan ziren eurretako batzuk.



Zure enpresa eta langileak zaintzera emanak

Quirónprevención, lehendabiziko segurtasun eta osasun aholkularitza nazioarte mailan



902 166 161

www.quironprevencion.com

quirónprevención



L.E.

Sarrionandia, lau haizetara

📍 **Herririk herri** - IURRETA

> **EKITALDIA.** Joseba Sarrionandiagaz akordatzen den herria da Iurreta. Sorterriko idazlea irakurtzen eta sentitzen duena. Urrian, kartzelatik bafle baten barruan ihes egin zuen poetaren letrak entzun ziren Iurretako bafleetatik. Joseba Sarrionandiari esker ona adierazteko eta bere lan literarioa aitortzeko, errezitaldiak, berbaldiak, ibilaldiak... antolatu zituzten.

Horrez gainera, Peru Magdalena idazleak eta Pello Salaberria bideogi-

leak *Joseba Sarrionandia, Hemen eta Han* dokumentala sortu zuten. Durangoko azokan ere proiektatu zuten.

Esker oneko jardunaldi horien inguruan galdetu zion ANBOTOK Sarrionandiari, eta ondorengo erantzun zuen: “Ez dakit merezi dudan orain arte idatzitakoagatik, espero dut merezi izatea hemendik aurrerakoagatik. Gainera, jardunaldietan parte hartuko dutenen artean badaude ni baino gehiago merezi dutenak”.



Errepide nagusia berrantolatuko dute

📍 **Herririk herri** - IURRETA

> **ERREPIDEA.** Iurreta erdibitzen duen errepidea berrantolatuko dute. Goiurira joateko biribilgunetik hasi eta autobiderra sartzeko bidegurutzerainoko tartean gauzatu dituzte lanak. Errepidearen tarte hori berrantolatzeko, 1,5 milioi euro inbertituko dituzte.



Kaleratzeak salatu dituzte Laitek enpresan

📍 **Herririk herri** - MALLABIA

> **LANA.** Laitek enpresak Mugapegaz kontratua apurto eta zazpi langile kalean geratu ziren. Langile horiek greban zeuden. ELAk eta langileek salaketak jarri dituzte eskubide urraketa dela iritzita.



A8an 75 euroko gastu muga jarriko dute

📍 **Herririk herri** - DURANGALDEA

> **TRAFIKOA.** Eskualdetik jende asko joaten da Gipuzkoara lanera, eta bidesaritan diru dezente utzi behar izaten dute. Bada, urtarriletik aurrera, Gipuzkoako zatian hileroko 45 euro ordainduko dute gehienez, eta Bizkaikoan, 30 euro.



Mañarian 146 bizileku hutsik egon daitezke

📍 **Herririk herri** - MAÑARIA

> **ETXEBIZITZAK.** Mañarian, herrigunekoak eta landa eremukoak batuta, 320 etxebizitza daude, eta horietatik 146 hutsik egon daitezke. Udalak herriko etxebizitza parkearen errealitatea jakiteko agindu zuen diagnostiko batean jasotzen dira datu horiek. Hutsik egon daitezkeen etxeetako 69 landa eremuan daude.

Izurtzako aterpetxea, gazte etorkinei zabalik

📍 **Herririk herri** - IZURTZA

> **ATERPETXEA.** 2007an ireki zuten Izurtzako Etxaburu dorrearen ondoan dagoen aterpetxea. 2014an itxi egin zuten, atzeritarren kopurua jaitsi egin zelako. Iaztik hona, berriz, kontrakoa izan da joera, eta aurten berriro irekiko ditu ateak. Apirilaz geroztik, gazte etorkinak hartzen dituen aterpetxea berriro dago zabalik. Gazteak Izurtzan errolatuta daude, eta herriko osasun zentroko erabiltzaileak direla azaldu dute arduradunek.



24 etxebizitza
berri
hirigunean

%100a
salduta
Arrakasta!

DURANGOn
ditugun etorkizuneko
proiektuei buruz
informa zaitez

DURANGO MONTEVIDEO



Garaje, trasteleku eta
pertsionalizazioa **BARNE.**

Baina hau ez da hemen amaitzen, **LANEAN JARRAITZEN** dugu Durangon proiektu berriekin.

Eguneratuta egon
nahi baduzu,
kontatu zure beharrak
eta informaturik
mantenduko zaitugu.

Informazio gehiago

946 462 041

www.sukia.com

 **sukia**



Euskaltzaleak aktibatzeke, Euskaraldia abiatu dute

▣ **Herririk herri** - DURANGALDEA

> **EUSKARA.** Euskaraz hitz egin eta ulertzen duten herritarren arteko harremanean hizkuntza ohiturak aldatzea helburu duen Euskaraldia ekimena aurkeztu zuten Bilbon. Euskal Herriko lurralde guztietako instituzioetako ordezkariak eta gizarte eragileak elkarlanean bat egin zuten aurkezpenean. Durangon ekimenagaz bat egiteko lehenengo hazia jarri zuten: euskaltzaleak aktibatzeke, Euskaraldia aurkeztu zuten abenduaren

1ean. Durangaldeko beste hainbat herritan ere lantaldeak sortzen ari dira Euskaraldia dinamizatzeko.

2018ko azaroaren 23a aukeratu dute mugarri moduan, urtebete barru, egun horretan abiatuko baita euskararen lurralde osoan batera egingo den aktibazio ekimen handia. 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra hizkuntza ohituretan eragiteko helburuz, *11 egun euskaraz* lelopean egingo da lehen Euskaraldia.

Euskararen aldeko aktibazioaren adibidea Alina Ahtamon. Gaztelaniaz ikasi eta bizitzera bultzatu zuten Errumaniatik Euskal Herrira etorri zenean. Gero, bere kabuz euskararako bidea egin zuen. Etorkizuneko mediku euskalduna izango denaren berbetan, “euskaraz ikasten ahalegintzeak integrazioan laguntzen du”. Durangoko Pol-pol tabernan egiten du lan, eta euskara praktikatzeko aukera ematen dio; etxean errusiarrez egiten du.



Zaharren egoitzetan akordiora heldu dira

▣ **Berbaz** - DURANGALDEA

> **LAN GATAZKA.** Urte eta erdiko greba deialdiaren ostean enpresekin akordiora heltzea lortu zuten zaharren egoitzetako emakume langileek. Garaipena lortzea posible dela erakutsi zuten. “Emakumeak garelako izan da borroka hau hain luzea; argi daukagun gauza da. Baina, seguruenik, emakumeak garelako eutsi diogu hainbeste”, azaldu zioten ANBOTOri Durangoko Barandiaran egoitzan lan egiten duten Ainhoa Pedrosak, Esther Ariznabarretak eta Geno Ereñak. “Hitzarmen duin eta justu bat gura genuen, zaharrei zaintza duin bat eskaintzeko”, zioten nekata, baina oso pozik.

“Gaztetxoek eredu izatea garrantzitsua da”

▣ **Kirola** - DURANGO

> **ESKUBALOIA.** Ibaizabal eskubaloia taldea Euskadiko ligan igotzeko borrokan dabil, eta, azaroan, maila nagusira igotzeko postuan geratzea lortu zuten. Zaletasuna sustatzeko lana ere egiten dute gaztetxoak entrenatuz edo euren erreferente izaten saiatuz. Lan horretan ari dira Irati Bereinkua Ramos eta Edurne Galizia Elexpe durangarrak. Beraien berbetan, “gaztetxoek eredu izatea eta gogotsu gabiltzala erakustea garrantzitsua da”. Saskibaloia, errugbia eta futbola nagusi diren herrian, eskubaloia helduleku txiki bat du Ibaizabal taldean.



Aritz Arginzoniz aske geldituko da otsailean

▣ **Herririk herri** - ELORRIO

> **PRESOAK.** *Aritz sustarretik atara barik* dinamikak deituta, manifestazioa egin zuten Elorrioren preso elorriarraren egoera salatzen. “Lehen aldia da Espainian kondena bete ostean Frantziak euskal preso politiko bat epaituko duena”, nabarmendu zuten. Espainian kondena bete ostean, abenduan Frantzian epaitu zuten Arginzoniz. Abenduaren 21ean jaso zuten epaia. “Aritzi Frantzian 10 urteko kartzela zigorra eskatzen zioten arren, Espainian bete duen kondena handiagoa denez Frantziakoa deuseztatu egin du epaileak konfusa delakoa aplikatuta”, adierazi zuten Maitte Arginzoniz Aritzen izekok.



ANBOTO, Tokikomek saritutakoen artean

Herririk herri - DURANGALDEA

> **SARIAK.** 2017ko edukirik onenaren saria eman zion Tokikomek ANBOTOrri. Martxoaren 31n kaleratutako ale berezia izan zen saritutakoa. 1937ko martxoaren 31ko bonbardaketen 80. urtemuga betetzen zen egun horretan, eta ANBOTOk azal osoa eskaini zion gaiari, diseinu propioa eginda; barruan zortzi orrialdeko erreportaje eta elkarrizketa sorta batu zituen. Azalik onenaren eta bideorik onenaren ataletan ere egon zen izendatuta ANBOTO.



Etxea erre ostean, elkartasun keinu ugari

Herririk herri - MALLABIA

> **ELKARTASUNA.** Sute batek Begoña Olaso bizi zen etxea erre zuen irailean. Horren aurrean, Mallabian hainbat ekimen abiatu zituzten etxerako materiala batzeko edo ekarpen ekonomikoak egiteko. Horietako bat Elgetzu baserriko labean egin zuten azaroko zapatuetan ogia salduta. Begoñaren alaba Itsaso Praderak zioenez, “laguntzeko borondate hori guztia sentitzeak bete gaitu gehien”.



‘Vitoria, 3 de marzo’, grabaketa baino gehiago

Kultura - DURANGO

> **ZINEMA.** 2018an estreinatuko da *Vitoria, 3 de marzo* (Gasteiz, martxoak 3) pelikula. 1976ko martxoaren 3an polizia espainiarrek Gasteizen egindako sarraskia dakar gogora, eta bertako produktore exekutiboetako bat da Asier Bilbao durangarra. Azken lau urteak proiektuan lanean egon ondoren, “grabaketa soil bat baino gehiago, omenaldi bat” izan dela dio.



GARAIKO UDALA

Tel.: 946 816 393
www.garaikoudala.org





Umeei begira, gabeziak bete guran

📍 **Herririk herri** - DURANGO

➤ **AISIALDIA.** Durangoko hainbat guraso elkartzen hasi dira, umeei begira herrian dauden gabeziak aztertu eta hobetzeko proposamenak lantzeko. Umeen-tzat aisialdi eskaintza hobea gura dute, batez ere eguraldi txarra dagoenerako. Izan ere, diotenez, “Durangon ez dago eskaintza duina 0-16 urte artekoentzat”. Julen Orbegozo, Naiara Zabala, Gaizka Uriarte, Alaitz Arizaga, Maria Oñate eta Gotzone Merino dira hasierako bultzatzaileak. Azaroan hasi ziren batzartzen

eta facebooken 1.500 lagunetik gorako sarea dute.

Jendea lanerako batzea da guraso hauen asmoa, “ez da soilik kexak bideratzeko elkarte bat izango”, gurasoek azaldu izan dutenez. “Gizartea erritmo bizian aldatzen ari da, eta beharrian berriekin gero eta gehiago egingo dugu topo. Horri aurre egiteko modu bat da elkar batzea eta plan integral bat egitea”, gaineratu zuten Durangoko guraso talde honetako kideek.

Etxebakoek urteko gau guztietan dute aterpea

📍 **Herririk herri** - ZORNOTZA

➤ **GIZARTEA.** Durangoko Amankomunazgoak gaua aterpe batean igarotzeko zerbitzua eskaintzen die etxegabeei. Orain arte, neguko hileetara mugatzen zen, baina 2018ko otsailetik aurrera, urteko gau guztietan zabalik egongo zela jakinarazi zuten. Jaurlearitzako Gizarte Sailaren eskakizunetara egokitu dira horrela. Besteak beste, Zornotza, Berriz eta Mallabia ere batu dira Amankomunazgoak eskaintako zerbitzura. Abenduan sinatu zuten hitzarmena, eskaintza urte osora eta beste zonalde batzuetara hedatzeko. Martxoaren 1ean ipiniko da martxan zerbitzu berria.



‘Movember’ elkartasun ekimena, DRTren eskutik

📍 **Kirola** - DURANGO

➤ **ELKARTASUNA.** Prostata eta barrabile-tako minbiziaren aurka lan egiten duen *Movember* mugimenduaren motore izan da Durango Rugby Taldea, eta beste hainbat kirol talde gonbidatu dituzte parte hartzera. Azaroan bibotea uztea izan zen proposamena, eta webgunera norbere argazkiak igotzea. Neskek ere parte hartu ahal izan dute, bibotea utzi ez arren.

Herriko 10 klubena babesa zuten ekimena aurkezterako momentuan. Esate baterako, etxeke neurketetan itsulapikoak ipini dituzte. Klubena ekarpenagaz, proiektua askoz gehiago hedatzea zen beraien asmoa. Batutako dirua *Movember* fundazioarentzat izan da.



Ramos eta Bereziartua Gau Krosean arinenak

📍 **Kirola** - DURANGO

➤ **KROSA.** 200 parte-hartzaile eta beste hainbeste irabazle izan zituen Durangon antolatutako gau krosak. Irabazle sentitzeko baldintza korrika egiten gozatzea zen, eta parte-hartzaileen helmugako irribarreak nahikoa izan ziren baldintza bete zela frogatzeko. Paul Bereziartua eta Marisol Ramos izan ziren arinenak. Proba nagusiaren aurretik, gaztetxoak izan ziren protagonista nagusiak.

Goi-tentsioari aurre egiteko deia egin dute

📍 **Herririk herri** - DURANGALDEA

➤ **GOI TENTSIOA.** Goi-tentsioko linearen kontrako mugimendua batzen eta koordinatzen saiatu da argindar linea geratzeko indarren bilgune bihurtu gura duen Goi Tentsioari Ez plataformak. Bide horretan pausoak emateko prest zeudela azaldu zuten. Goi-tentsioko linea Zornotzan sartu eta Zaldibarren irtetetan da Durangaldean. 73 kilometroko ibilbidean, 22 kilometro eskualdean egingo ditu.



“Amets bat izan da guretzat Jesuiten Etxea”

▣ **Berbaz** - DURANGO

> **GIZARTERATZEA.** Hamarkada bete du Jesuiten Etxeak, Etorikinentzako harrera eta gizarteratze proiektuak. Urte hauetan 49 lagun hartu dituzte bertan, Koldo Katxo elkarteko presidentek ANBOTOri azaldu zionez. Urteurrena ospatzeko hainbat topaketa egin dituzte urtean zehar.



Indarkeria matxistaren aurkako oihua

▣ **Herririk herri** - DURANGALDEA



> **BERDINTASUNA.** Hainbat ekimen antolatu zituzten azoaren 25eko indarkeria matxistaren kontrako egunerako Durangaldean. Herririk herri indarkeria kasuengatik protesta egin zuten, eta kontzientziaziorako aldarria zabaldu zuten. Durangon, esate baterako, II. Emakumeen lasterketa egin zuten herriko kaleetan, Durango Kirol Taldeak antolatuta. Plataforma Feministak deituta manifestazioa ere egin zuten.

Durangaldean, hainbat eraso salatu dituzte 2017an. San Fausto jaietan, eraso salaketa bat zela-eta, jaiak eten eta elkarretaratzea egin zuten. Jaien aurretik herriko elkarte, merkatari eta norbanakoek eraso sexistaren aurkako akordioa sinatu zuten, Herritarren Ituna. Udaletxeko plazan agerrialdia egin zuten.



“Aske bizi eta maitatzea beharrezkoa da”

▣ **Kultura** - DURANGO

> **MUSIKA.** Askotan jo du Gatibuk Platearuenean, baina inoiz ez bi gauzez jarraian eta sarrera guztiak askoz lehenago agortuta. Kontzertuen aurretik Alex Sardui abeslaria elkarrizketatu zuen Ilaski Serrano kazetariak.



Etixeraten kanpaina babestera deitu dute

▣ **Herririk herri** - DURANGALDEA

> **PRESOAK.** Etxerategen senideak babesteko eta presoaren asistentzia kubritzeko kanpaina bat ipini zuen martxan. Presoaren asistentzia juridikoa eta medikua bere gain

hartu ditu elkarteak; bada, hori finantzatzeko, herritarren laguntza eskatu zuten Bego Retak, Amaia Etxenagusiak, Maite Arginzonizek eta Maria Angeles Onaindiak, Durangoko eta Elorrioko lau presoaren senideek: “Zerbait mugitzen bada, esperantza txiki bat da, eta hori asko da guretzat”, azaldu zuten.



Durungaldean arnasten dugun airea, herritarren kezka iturri

Herrikerri herri - DURANGALDEA

> INGURUMENA. Udaz geroztik zalaparta itzela ibili da Durango eta inguruetan, airearen kalitatearen inguruan. Hatsaren eraginez, ahoz aho sortu zen zurrumurrua lehenik, eta kaletik sare sozialetarako pausoa eman zuen gero. Arnasten dugun airea herritarren kezka iturri bihurtu zen. Horren aurrean, Durango Udalak ikerketa egiteko eskatu zion

Eusko Jaurlaritzari, eta Fumbarrik gai kutsakorrek isuri dituela egiaztatu ahal izan dute. Smurfit enpresari espediente bat zabaldu diote, irailean iragazki batean matxura eduki zuela abisu eman eta gero.

Hala ere, Durangaldeko airea urteko %99 egunetan ona dela dio Jaurlaritzak. Ez du gauza bera pentsatzen Ecologistas

en Acción erakundeak; Durungaldean PM2,5 partikulekin dagoen arriskuaz ohartarazi du. Europar Batasuneko mugaz ez da gainditzen, baina bai Munduko Osasun Erakundearena. Gainera, epidemiologiako ikerketa batek dio eremu industrialetan minbiziak jota hiltzeko arriskua handiagoa dela.

Elorrion eta Abadiñon ere bai

Durangon bezala, Elorrion ere egin dute ikerketa, eta enpresei neurriak exijitu ostean, aireak hobera egin duela ikusi dute. Abadiñon ere lanketan hasi dira, justu urtea amaitu aurretik.

Igor Elortzaren azken finala BECen

Kultura - DURANGO

> BERTSOLARITZA. Igor Elortzak Bertsolari Txapelketa Nagusian gehiago ez duela kantatuko iragarri zuen BECeko azken agurrean. Bere zazpigarren txapelketan, laugarren finala zuen dagoeneko. Durangarra bosgarren postuan gelditu zuen. Saio ona egin zuen durangarrak; goizean ondo hasi eta beherantz joan zen, baina arratsaldeko saioan gora etorri zen berriz, eta ale bikainak utzi zituen.



Kudeaketa diploma ANBOTOrentzat

Herrikerri herri - DURANGALDEA

> ERREKONozIMENDUA. Azken bi urteotan kudeaketa arloan ahalegin berezia egin dute Tokikomen batzen diren hainbat tokiko hedabidek. Euskalitek emandako formakuntzaren bidez, kudeaketa aurreratuan sakondu dute, enpresa ikuspuntua eguneroko jardunean txertatuz. Horrela, EUSKALITen Kudeaketa Aurreratuaren Euskal Saria eskuratu dute hainbat hedabidek, tartean ANBOTOk. Abenduaren 12an Donostiako Kursaallean egindako ekitaldian jaso zuten errekonozimendu hori Baleike, Goiena, Kronika, Ttipi Ttapa eta Topaguneagaz batera Arantxa Tapia Ekonomiaren Garapenerako sailburuaren eskutik.



Sutea Eubako gazteen harrera zentroan

Herrikerri herri - ZORNOTZA

> SUTEA. Adin txikiko etorkinentzako aterpetxean sua sortu zen abenduan, eta bertako gazteak handik atera eta beste norabait mugitu behar izan zituzten horren eraginez. Ertzaintzak 17 urteko gazte bat atxilotu zuen egun batzuk geroago Durangon, aginte judizialaren baimena lortu ostean, sute horregaz zerikusia izan zezakeelakoan. Momentuz, hori da sutearen inguruan egin duten atxiloketa bakarra.



110.000 bisitari sormenaren lurraldean

Kultura - DURANGO

> **AZOKA.** 53. Durangoko Azokak 110.000 bisitari izan zituen. Antolatzaileek diote-nez, 7,2 milioi euroko eragin ekonomikoa izan du Durangaldean.

Olentzeroren eta Mari Domingiren mezua


Herririk herri - DURANGO

> **GABONAK.** Gabonen inguruko zurrunbiloan murgildurik, Olentzerok eta Mari Domingik tarte bat hartu zuten ANBOTOgaz hitzordua jartzeko.



Euskararen erabilera %22,7koa da Durangon

Herririk herri - DURANGO



> **EUSKARA.** Soziolinguistika Klusterrak euskararen kale erabileraren inguruko ikerketa egin du, Durangoko Udalaren eskariz. Asier Basurto klusterreko ikerlariak txosten horren emaitzak eta ondorioak azaldu zituen, abenduaren 13an, Plateruenean emandako hitzaldian. Azterketaren arabera, Durangoko euskararen kale erabilera %22,7koa da. Basurtok azaldu zuenez, haurrak (2-14 urte bitartekoak) dira kalean euskara gehien erabiltzen dutenak (% 37,8). Euskara gutxien erabiltzen dutenak, berriz, adinekoak dira (% 14,5). Gazteen erabilera (15-24 urte bitartekoak) % 25,2koa izan da eta helduena (25-64 urte bitartekoak) % 18,8koa. Ikerketak hizkuntza ohituren inguruko beste datu esanguratsu bat azalerratu du. Umeek euskara gehiago egiten dute helduekin daudenean beraien artean baino.



Institutuari izena aldatzeko proposamena

Herririk herri - DURANGO

> **HEZKUNTZA.** Durangoko institutuari izena aldatu gura dio udalak, Fray Juan Zumarraga Mexikon indigenen aurka eta "emakumeen inkisidore" aritu zelako. 50 urte beteko ditu ikastetxeak, eta, udalaren ustez, "sasoi ona" da izena aldatzeko.

'Mundutik Elorriora, Elorriotik mundura'

Herririk herri - ELORRIO

> **DOKUMENTALA.** Aniztasun kulturalaren aldeko ekimenaren baitan, 'Mundutik Elorriora, Elorriotik mundura' dokumentala sortu du udalak. Abenduaren 15ean egin zuten jaialdia.



**Hiper Eroski
Abadiñon erosteko
modu berri bat**

EROSKI club
kreditu-txartel
berria

EROSKI Abadiño
hipermerkatu berria
Azoka kutsuko hipermerkatua

EROSKI
Abadiño zurekin






IURRETA

**Tellitu-n
hurrengo
eraikuntza**

3 logelatako
6 etxebizitza

2 logelatako
11 etxebizitza

Garajea eta
trastelekua barne



**Etorri
ikustera!**

ZARATE ELEXPE
E R A G I L E A K

Kontsultatu beste aukerak

Tel.: 946 816 673
www.zarateyalexpe.com